

ELKARRIZKETA: ANTON GARATE, SANTA AGEDAKO KANTARIA

RKO

# Arrasate

P R E S S


2000.eko  
otsailak 11  
483. zenb.



**Gida**  
**2000**  
AFFARATE  
AETXABAETA  
ERNOPLATZA  
LEINTZ BATZARA  
SNE • AGARATE MAMBAERAK

IKUSPEGIA: MIKEL IRIZAR • EUREN IKUSPUNTUTIK: JON ALDANONDO  
ORAIN ETA HEMEN: GIDA 2000 • KULTURA ELKARRIZKETA: KOLDO ZUAZO

*Zure etreko  
txokoak maite  
dituzulako*



*cerámicas*  
**URIBARRI**

Uribarri etorbidea, 22 - B • Tel. / faxa: 943 79 81 80  
ARRASATE

# 10 urte eta gero

**G**ure telebistari urtehurren seinatua iritsi zaio, eta bidean kide izan duen aldizkariak ale berezia eskaini dio, auzoen arteko gizatasunak agintzen duen moduan. Ale honetan, ATBko izenak eta aurpegiak, saioak eta pasadizoak, gura adina gogoratu ahal izango dituzue.

Horregatik, txandakako arikulua niri portunatu zaidanez, gaiak eta besteena errepikatu barik zer esan aurkitzea kostatzen zait. Baina aurkitu dut.

Bada esaera zahar bat "urrutiko intxaurrek hamalau, bertaratu eta lau" dioena, espejismoen aurkako erremedio edo. Baina esaerari buelta emanez gero, "bertako intxaurrek lau, urrutiratu eta hamalau" geratzen da, eta honek ere badu zentzurik. Alegia,



Mikel Irizar

**Bertako intxaurrek lau, urrutiratu eta hamalau**

gauzak hurbilegitik ikusita balio gutxitu egiten direla, arrunt bilakatu.

Sarri gertatzen da bakoitzak bereari aparteko garrantzirik ez ematea, hariak eta urrineko norbaitek gureaz miresmena erakusten duen arte. Kanpotik bueltan datozen laudorioek etxekoenak baino eragin handiagoa izaten dute. Esaera zahararen arabera, lau/hamalau

proportzioan, gutxi gora-behera.

Egunero ikusi ahal dugulako, ez digu aparteko efekturik egingo, baina ATB sekulako produktua da. Kanpoko iritziek behin eta berriz aipatu dutenez, duina eta profesionala, programazio zabala eta aberatsa duena, herriko eta eskualdeko gaiak ondo lantzen dituenak. Akats batak edo besteak ez dezala errealitate hau estali.

Eta beste kontu bat. ATB 10 urte egitera iritsi da, eta gainera osasuntsu.

Bidean indarra galdu partez, indartuz joan da. Eta hamargarren urtean egitasmo handiago bat bultzatzeko prest dago.

Munduaren bilakaera egitura berriak eskatzen hasi denean, hor dago ATBren eskarmentua eta kemena, eskualderako sortu nahi den telebista berriaren gutxiengo kalitatea eta maila bermatzeko.

Areago, gurea irla izan ez dadin Euskal Herriko beste esparru batzuetan azaldu dugunean, egin dugunak miresmena sortu du eta egin nahi dugunak interesa, gure zenbait ideia plangintza orokorrerako oinarritzko zutabe izan omen daitezkeelako.

Ez dut, noski, *Arrasate Press* ahaztu nahi; aldizkaria eta telebista biak dira ARKOn zutabe sendoak. Baina oraingoan ATBren urteurrena da, eta berari dagozkio lorak eta lausengauk.

Labur esateko, 10 urteotan ATB nola edo hala egiten lagundu, ikusi, kritikatu edo zirikatu dugunok, denok daukagu harro sentitzeko eskubidea. Lau iruditu arren, hamalau balio duen intxaurrek sortu dugulako. ■

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate  
Komunikabideak) Otalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Dieguez. **Kazetariak:** Ubane Madera, Maider Osa, Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, Arantza Arroabarri. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Arantza Zallo. **Administrazioa:** Agurtzane Gaiñarain, Maite Uriolabertia (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maddi Trubuelo. **Asteburuetako berriemaldea:** Monika Belastegi. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Sailla, Karmele Perez, Jose Mari Velez de Mendizabal, Iker Ezpeleta. **Banaketa arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.400. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko-kontuzartea:** Inprimategia: Geru Koop. E. (Zubi-laga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.

**ARRASATE PRESS** paper birziklatuan egiten da.

**Azala:** Maddi Trubuelo.

Arrasateko Udaleren laguntza  
Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza  
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

**Hamarrurtebetez  
HamarrrrrATBetez  
Beste Hamaikakakakatez  
Harro Arrasatez**


*Telegoien gradora iritsi zaitez (bis)*

*(okerrik balego, zuzen zenezake)*

**Irratia ikusi  
Telebista irakurri  
Aldizkaria entzun**

**Amets?  
Eromen?  
ala Iragarpen?**

**Eta etorkizuneko komunikabidea,  
IrratiTelePress deituko balitz?**



Xabier Zubizarreta  
Arrasateko Alkatea



# UGARTE

## A R O Z T E G I A

Apainketa • Altzariak  
Ateak • Armairuak

San Juan, 1 • (Gasolindegiaaren parean) • BERGARA • Tel./ Faxa: 943 76 54 91

**Hemen dira berriz ere MultiOpticas Multifertas Orain familia osoarentzat.**

**Multiofertas**  
**MULTIOPTICAS**



Eskaintza honek 2000-02-29ra arte balio du



Erref: B0003

*Bonardi bilduma*  
Denontzat

**3.800** pta.n  
22,84 €



Erref: B0006

*Betaurrekoak*

*Armazoia + Kristalak\**

60 urtetik gorakoentzat **8.900** pta.tik aurrera  
53,49 €



Erref: GTV550

Giulio Tabacchi *betaurrekoak* *Armazoia + Kristalak\**  
Gazteentzat

**13.900** pta.tik aurrera  
83,54 €

**EDOZEIN DISTANTZIARA ONDO IKUSTEKO**

*Lente Progresiboak*

Gurasoentzat **19.500** pta.tik aurrera  
117,20 €

\*Eskaintza honek lente zurientzat balio du (+/-4ko ESF. +/- 2ko ZIL.)

**MULTIOPTICAS**  
**LARRAÑAGA**

Ibargarai, 16 - BERGARA  
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE  
J. M. Barandiaran Enp - ORDIZIA



**ARRAZAKERIAZ BI HITZ**

**B**erriz ere arrazakeria eta xenofobia gertakariak itzuli dira gure artera. Oraingoan Andaluzia aldeko El Ejido herrian gertatu dira istilurik larrienak: jende uholde handiak etorkinen eta hauen jabegoen aurka oldartu dira, txikizio itzelak sorraraziz. Kasualitatea ote?

Desmond Tutu gotzain Hegoafrikarrak munduan bi herrialde mota daudela argudiatu zuen: alde batetik jadanik arrazistak direnak, eta bestetik, oraindik erakusteko aukerarik izan ez dutenak. Gure kasua bigarrena izango litzateke. Euskal Herrian etorkin kopurua oraindik ere ez da oso ugaria, %2 inguru, baina portzentaje handiagoko etorkinen guneetan - Kataluniako zenbait eremutan eta

Andaluziako beste zenbaitetan - gertatu dira jada istilu larriak. Nolanahi ere, nork sortzen du etorkina? Gure balorerik preziatuenak: aurrerapenak eta ongizateak. Gure aurrerapena eta erosotasuna euren miserian eta oinazean oinarriturik dago. Horrenbestez, gure aurrerapenak eta "luxuzko" bizitzak gure artera erakartzen dit. Baina guk ekoizten ditugun produktuen kontsumitzaileak baino ezin daitezke izan. Gure pastel zoragarrian ezin dute muturra sartu, horrela gure ongizateak gora-beherak izan baititzaiteke. Guk saltzen dizkiegun gaiak kontsumitzen dituzten une berean baino ez dira existitzen guretzat. Gure onura berbera izan nahi dutenean, ordea, errudun bihurtzen dira, eta merezitako ordaina jaso behar dute.

Hain azkarrak gara ezen, arazoak sortzen ditugun heinean, konponbideak aurkitzeko gai garela uste baitugu. Xenofobiari eta bazterketari aurre egiteko diru laguntzen eta buru-zuriketaren logika sortu dugu, sasi-elkartasunezko ekimen zinikoen laguntzaz: kreditu-txartelen bitartez eginiko gastuaren zati bat munduko herrialde txiroei bidaliz, edari bat kontsumitzean emandako laguntzarekin, telebistako maratoi erraldoietan bildutako diruarekin, pertsonaje ospetsuek antolatutako partiden bitartez, etab. Hori oso elkartasun eraginkorra da, gehiago kontsumituz, handiagoa da besteei emandako laguntza eta han-

diagoa da aldea areagotzen duen ekonomi-sistemari emandako diru laguntza. Horixe datza, hain zuzen ere, arazoaren funtsa. Eta ez dezagun norabiderik aldatu. Dagokien pastelaren zatia aldarrikatzen ari dira etorkinak, eta eskubide osoa dute.

Honela bada, desberdintasunaren benetako arrazoen inguruan egin beharko genuke hausnarketa, norabiderik aldatu gabe, benetako galderari erantzuna emanez: zergatik da etorkina den bezalakoa? Zer zerikusi daukagu guk horretan? Zergatik daude hain desberdintasun nabariak herrialdeen artean?

Oskar Loiti.

**Jauntxoa eta mailegua**

- Zer iritziko zenioke herri bateko lur gehienak familli batenak direla eta beste herrikideek belaunaldiz belaunaldi jauntxoaren lurrak lantzea beste irtenbiderik izan ez dutela bazeneki?
- Eta lurjabeak txirotasunetik irten zitezen interes txikian mailegu bat eskainiko balie?
- Eta handik puska batera interesak bikoiztu eta soldata laurden batean jaitisiko balie?
- Eta baldintza berri horietan zorra itzuli ezinak bultzatuta nekazariak jauntxoagana joandakoan, honek lan gehiago egitera eta zorra hasieran erabakitako epeetan ordaintzen jarrai zezaten lehenagoak baina interes altuagoan mailegu berriak onartzea behartuko balitu?
- Eta lehen mailegua eta 50 urte beranduago nekazariak sekula baina soldata txikiagoen truke jauntxoaren lurrak lantzea beste aukerarik gabe jarraitzeaz gain, etengabe handituko litzatekeen zor baten menpe baleude? Hauxe da 2000. urte honetan 1.000.000.000 gizaki baino gehiagoren historia.

Kanpo Zorra  
Ezabatze Bilkura

**GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK**

- Ostirala, 11
  - Zabala, Zarugalde
- Larunbata, 12
  - Ruiz, Maalako Errabala
- Igandea, 13
  - Morales, San Andres
- Astelehena, 14
  - Azkoaga, Ferrerias
- Astearte, 15
  - Azkoaga, Iturriotz
- Asteazkena, 16
  - Morales, San Andres
- Osteguna, 17
  - Irizar, Erguin

*Sili Sili*

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 81 82

**UGARAN jatetxea**

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**M**

**MEMESA**

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

**USTEAK USTE**

*Zein da arazoa?*

**G**eografikoki urruti samar gelditzen zaizkigun kontuekin nator, baina ez dira garrantzi gutxiagokoa, ez horregatik!. El Ejido herrian, Almerian, egun gogorak bizi izan dituzte joan den asteburuan. Telebistaz ikusi genituen bertakoak omen direnak kappotik etorritakoak aurka. Arazoa arrazakeria dela diote, baina kontuan izan behar da bi komunitate horien aukera ekonomikoak ez direla berberak. Arazoa gizartean dago. Elkarrekin bizi ezina ez da arrazakeria kontua, elkarrenganako errespetorik eza baizik.

Emigranteek lana kentzen digutela dio zenbaitek. Zein lan? Zer baldintzatan aritzen dira lanean? Bertakook nahi ez ditugun lanetan aritzen dira. Ez dute aukerarik bestelako ezertan aritzeko eta zertan ari gara, bada, geure arazoan errudunak eurak direla esaten? Poliziak ere ez du parte hartu liskarretan. Ez omen dute argi ikusten noren errua den. Ala ez da komeni errudunik aurkitzea?

Marijo Deogracias



**Bailarakoari beldurrik ez**

\* Jon Aldanondo

**B**ailarako telebista mar-txan dela jakina da Arrasatear gehienek artean. Zerbait badela edo, zurrumurrua zabaldu da. Lan horretan murgilduta daudenak, hainbat lan egiten ari dira, zer nolako itxura eman proiektu honi. Lan gogorra da, baina esku artekoak konbentziturik egonez gero, berak ematen du indarra oztupoak gainditzeko.

Egia da bailarako telebistaren ideia Arrasateetik irten dela, baina ez gainontzekoak baino argiagoak garelako, besteak beste, ATBren 10 urteko esperientziak asko erakutsi digulako baizik.

Aro digital berri honek sekulako aldaketak eragingo ditu gure eguneroko bizitzan, telebistaren kasuan, kate desberdin pila etorriko zaigu gure etxeraino eta hau ikusita, gurea hobetzea besterik ez zaigu gertatzen. Eta hobekuntza hori ezin daiteke gure zilborrari begira gertatuta bakarrik egin; laguntza behar dugu, inguruko laguntza.

Debagoienan euskaraz-

ko telebista bat edukitzeko aukera ona dugu: bailaran euskara asko egiten da, euskara elkarteak aspalditik ari dira lanean, beraz, lan berriaren eginkizuna etxe atariraino etorri zaigu eta ongi etorria egin eta etxeraino sartzea besterik ez zaigu falta. Aukera aprobetxatuko ez bagenu produktora edo etxe komertzial batek hartuko liguke aurea. Honekin posible litzateke bertako telebista batek bertakoekin izan beharko litzuzken loturak zalantzan jartzea.

Baina arrasatearren batek pentsa dezake, Arrasateko telebista proiektu handiago

batean integratzen bada, orain arte izan duen nortasuna gal dezakeela. Baina ni ezezkoan nago.

Herri bateko esparruan geratzen den telebistari muga asko ikusten dizkiot, bi garrantzitsu bai behintzat: lehena, zaila izango da herri batek sustengatzen duena oso handia izatea, bai giza baliabide aldetik, baita teknika baliabide aldetik ere. Bigarrena, berriz, eduki aldetik bere mugak izatea. Ekintzak, gaiak, aurpegiak, azken finean, errepikatu egiten dira.

Hori horrela dela sinesten duenak ez du beldurtzeko arrazoirik. Bailarako telebistak, edukieta asko irabaziko du. Baliabide teknikoak ugariagoak izango dira eta baita horiek erabiliko dituzten langileak ere. Aukera ezin hobea izango da programen kalitatea hobetzeko. Helburua kalitate hori hobetzea izan beharko litzateke, emisio ordu kopurua bigarren mailan utziz.

Oraindik landu gabeko esparrura sartuko gara eta horretan onenak izan behar dugu. Urte batzuetarako zeregina badugu bertakoa primeran egiteko. Aurrerantzean ere zapping kirolak jarraituko du eta.

\* ATBko zuzendaria

“  
**ATBren 10 urteko esperientzia baliagarria izan da bailarako telebistaren proiekturako**  
 ”

**R**ando  
**ERROTULOAK**  
 Gipuzkoa etorbidea 6  
 (Legarre Pabilioia)  
 Tel. / Faxa: 943 79 79 70

**OSORIK**  
**PUB**  
 Ignazio Zuluaga, 4  
 ARRASATE

**HIES**  
**EKIMENA**  
 Astelehen, astearte  
 eta ostiraletan  
 5etatik 8etara.  
 Tel.: 943 79 26 99


# Zer iruditzen zaizu San Balentin eguna?

Otsailaren 14an izango da maiteminduen eguna



**Teresa Fernandez**  
(34 urte)  
Langilea

Ergelkeria iruditzen zait. Egun arrunta da, besterik gabe.



**Josu Telleria**  
(36 urte)  
Langilea

Ondo dago, eta batzuetan ospatzen dut.



**Angelines Vara**  
(50 urte)  
Etxekoandrea

Maiteminduentzat oso egun polita da. Neuk ere detailtxoren bat egiten dut.



**Juan Jose Rodriguez**  
(55 urte)  
Langilea

Ondo ikusten dut. Maiteminduta daudenentzat egun ona da.



**Almudena Ruiz**  
(40 urte)  
Etxekoandrea

Egun komertziala da, besterik gabe.




**Francisca del Palacio**  
(63 urte)  
Etxekoandrea

Ez dut gauza horiez tutik ere ulertzen. Noiz ospatzen den ere ez dakit eta! Horrelako gauzak gazteentzat dira.



**Francisco Aguilar**  
(65 urte)  
Erretiratua

Ongi dagoela iruditzen zait, baina nik ez dut ospatzen. Noizean behin, afaria edo egiten dugu, baina gutxitan.



**Eugenio Velasco**  
(54 urte)  
Langabea

Maiteminduta daudenentzat jai eguna da. Baina gogoia ere izan behar da zerbait berezia egiteko.

*Sagardotegia Txotx egin!*

**ITURRIETA**

Arraga auzoa  
Tel.: 945 44 53 85  
ARAMAIO

CONCEPCION TAMAYO

**DERMATOLOGOA**

ASEGURUA

Maalako Errabala, 23-2A • ARRASATE  
Tel.: 943 77 05 57 • Txanda aurrez eskatu

# 11

## ostirala

■ ZINEA

*Todo sobre mi madre*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ GO-JAM ARETOA

TT.L.T. taldeak emanaldia eskainiko du Bergarako Go-Jamen, Jam aretoaren bigarren solairuan. Sarrerak 600 pezetan. Gaueko 22:00etan.

■ ANTZERKIA BERGARAN

Hika taldeak *Euskal Off* izeneko antzezlan eskainiko du, Bergarako Udalaren kultura zerbitzuaren eskutik. Novedades aretoan, 22:30.

# 13

## igandea

■ ZINEA

*El coleccionista de huesos*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ ANTZERKIA

*Dama eta Kardinala* komedia eskainiko du Txalo taldeak. Ane Gabarain eta Kandido Uranga aktoreek egingo dute lan. Amaia Antzokian, 19:30.

■ AISIALDIA MINTZAGAI

Guraso eta seme-alabei zuzendutako hitzaldia eskainiko du Alvaro Beñaran Aranzabal pedagogoak, Erguin Herri Eskolan. Guraso eta seme-alaben arteko harremanak eta aisialdiaren erabilpena izango dira hizpide. Erguin Herri Eskolan, 18:00.

■ HITZALDIA ARAMAION

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza mintzagai Arrasate-Aretxabaleta institutuak antolatu duen hitzaldi batean. Aramaioko San Martin Herri Eskolan, 18:30.

# 15

## asteartea

■ ZINEA

*El coleccionista de huesos*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

■ LEHEN HEZKUNTZA MINTZAGAI

Lehen Hezkuntzari buruzko hitzaldi informatiboa izango da Arizmendiko Arrasate Ikastolan. San Viator Txiki-ko mediatekan, 18:00.

# 16

## asteazkena

■ DEBA IBARREKO EUSKERIA

Koldo Zuazo EHuko irakasleak "Deba Ibarreko Euskaria" liburua aurkeztuko du. Monterronen, 19:00.

# 14

## astelehena

■ ZINEA

*El coleccionista de huesos*, 19:00 eta 21:30, Alai zineman.

# 12

## larunbata

■ ZINEA

*El coleccionista de huesos*, 19:30 eta 22:00, Alai zineman.

■ JAM ARETOA

*Ocean Colour Scene* eta *Fila India* taldeen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. Sarrerak 2.500 pezeta. Gaueko 21:30etatik aurrera.



**Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis**

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72



**ILE APAINDEGIA**

Alfonso X jakintsua, 1 behea  
(Grupo San Juan)  
Tel.: 943 79 79 65

X Bataioak, jaunartzeak, enpresa bazkariak eta lagunartekoak

X Karta eta menu berezien zerbitzua



DENBORALDIKO PLATERAK, GIRO ONENEAN

**BASTER-ALDE**  
**J A T E T X E A**

*Galartza auzoa • ARETXABAleta*

Tel.: 943 79 24 58



■ **HITZALDIA IKASTOLETAN**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren inguruan hitzaldi informatiboa izango da San Viatorren eta Ferixalekuan, 18:00.

■ **HITZALDIA INSTITUTUAN**

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari buruzko hitzaldia eskainiko du, Arrasateko beheko eraikinean, 18:00.

# 17 osteguna

■ **ZINEA**

*Hoy empieza todo*, 19:00 eta 21:30, Alai zinema.

■ **ZINEA AMAIAN**

Udalaren Kultura egitarauaren barruan, Todd Solondzen *Happiness* filmea eskainiko da. Sarrerak 450 pezetan, 400 Gazte Txartelarekin. Amaia Antzokian, 21:30.

■ **KASINO ELKARTEA**

Kasino Elkarteak urteroko batzarra izango du eta baita Ezohiko Batzar Orokorra, lehendakari berria aukeratzeko. 18:30etan lehen deialdia, eta 19:00etan bigarrena.

■ **MANOS UNIDASEN ERAKUSKETA**

Munduko bidegabeke-riei eta ezberdintasunei aurre egiteko asmoz, *Elkartasun Bidea* erakusketazabaldu du Arrasateko Manos Unidasek. Hainbat lurralde ezagutuko dira erakusketan zehar, elkartasunaren alde lan egiten duten erakundeen lana ezagutzeko. Otsailaren 12ra arte, Monterronen.

■ **LUDETEKA ERGUINEN**

Larunbat honetan, hilaren 12an, eta hurrengo bietan, 19 eta 26an, Erguin auzora hurbilduko da Txatxilipurdiko Ludoteka Ibiltaria. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako hurrek jolasteko aukera paregabea izango dute. Erguin Herri Eskolan, 11:00.

■ **ZABORREN ERAKUSKETA**

Zaborren Problematika Aztertzen kanpainaren barruan "bitxien" erakusketaz eskaintzen dute Udalako Ingurugiro Eskolak eta Mankomunitateak. Monterronen, hilaren 14tik aurrera, 18:00-20:00.

■ **MARTXOAK 8**

Hilaren 18an, ostiralez, amaitzen da Martxoak 8ko IV. Kartel Lehiaketan parte hartzeko epea. **Emakume! Hartu hitza eta erabakia** leloak agertu beharko du kartelean. Emakume Sailerak bidali lanak.

■ **IHAUTERIETAKO KARTELAK**

Arrasateko Ihauteriak iragartzeko kartel lehiaketa martxan dago. 2000 Haratuzteak Arrasate leloarekin aurkeztu behar dira lanak. Otsailaren 21era arte.

■ **HISTORIA BEKAK**

Justo Garate Arriola bekak eskatzeko epea hilaren 15ean amaitzen da. Historiaren arloan euskarazko ikerketa lana burutzeko laguntza hau Bergarako Udalak antolatzen du.

■ **INTSUMISOEN AFARIA**

Martxoaren 11rako sagardotegiko afaria antolatu du Intsumisoen Batzarrak, eta izena ematera gonbidatzen zaituzte. Iñigo Irasuegi, tel. 943 79 90 59.

**Martxoaren 8ko IV. kartel lehiaketa**  
**"EMAKUME! HARTU HITZA ETA ERABAKIA"**

**Saria:** 70.000 pta (-PFEZ)  
**Zure lana aurkezteko epea:** otsailak 18  
**Oinarriak:** Arrasateko Udaleko Emakume Sailean.



ARRASATEKO UDALA

Emakume Sails ■

Berri gehiago 943 79 09 00 edo 943 79 41 39 telefonoetan.



**ESTELLA ORTOPEDIA**

Javier Estella, ortopediako teknikari tituluduna  
*Osakidetzarekin eta Lagun-Aroekin hitzartuta*

**Plantilak • Oinetakoak**

- Oin delikatuak
- Diabetikoak
- Deformidadeak
- Umeentzat zuzentzailea



RPS 421/97

Matxiategi, 5 • BERGARA • Tel.: 943 76 19 63

## astea bi hitzetan

### ■ Martxoaren 8a prestatzen

Arrasateko Emakumeen Kontseiluak hirugarren bilerara izan zuen pasa den ostegunean. Nazioarteko Emakumearen Eguna landu zuten bereziki bileran elkartu ziren zortzi lagunek, egun hori ospatzeko egingo diren ekitaldiak, hain zuzen ere. Hitzaldiak, erakusketak, zine emanaldiak, herri bazkaria eta bestelakoak egongo direla jakinarazi zuten. Otsailaren bukaeran hasiko dira ekitaldiak eta martxoan zehar jarraituko dute.

Baina horrez gain, Emakumeen Kontseiluak Familia eta Gizarte Heziketarako Zentroaren egoera ere aztertu zuen eta baita Irungo eta Hondarribiko alardeak ere. Izan ere, abenduan gai horri buruzko mozio bat aurkeztu zen Arrasateko Udalean. Dena dela oraindik behintzat, martxoaren 8a prestatzen segituko dute. Hurrengo bilerara otsailaren 21ean izango da, 18:30etan udaletxean. Emakumeen Kontseiluak, talde honetan parte hartzea nahi duen edonori bilerara joateko gonbita egin dio.

### ■ Garabia auzoetara

Garabi zerbitzua herriko auzoetara hedatzen hasi da jendeak hala eskatuta. Zigorrolan hasiko da lanean baina apurka-apurka beste auzoetara ere zabalduko da. Jose Mari Urizar "Ametzuk" adierazitakoaren arabera, Erdialdean gertatzen zen bezalaxe, auzoetan ere jendeak edozein tokitan uzten ditu ibilgailuak, herritarren kalterako. Hori ikusita, herritarren eskaerari jaramon egin eta garabi zerbitzua herriko auzoetara zabaltzea erabaki du udalak.

### ■ Auzo-Lagun sarituta

Auzo-Lagun enpresak beste sari bat jaso du. Zumarragako Antzinako Amaren ospitalean eskaintzen duen zerbitzuagatik ISO kalitate agiria eman dio BVQI nazioarteko bulegoak. Horrelako agiriak bazituen lehendik ere Arrasateko kooperatiba honek, baina oraingo hau berezia da ospitale horretako sukaldaria Auzo-Lagun eta Osakidetzaren artean elkarlanean kudeatzen da eta. Auzo-Lagunen ustez, enpresa pribatu eta publikoen arteko elkarlan positibo honek aurrera jarrai deza keela frogatzen du lorpen honek.



“ Bake prozesuetaz hitz egiten denean batzuek maltzurkeriaz egiten dute eta beste batzuek bakea ETak borroka armatua uztea dela diote. Gure ustez hori ez da bakea. ETak utzi dezake borroka armatua, baina horrek ez du esan nahi hemen bakean bizi garenik, euskaldunoi gure erabakia hartzeko eskubidea ematen ez badigute. Zentzu horretan Irlandako prozesua eredugarria izan da, baina herri bakoitzak ezaugarri propioak ditu eta hango eta hemengo prozesuak ez dira berdinak. Dena dela, han eta hemen gauza bat gertatzen da; hango unionistek eta hemengoek beldurra diotela demokraziari. Azken finean badakitelako herri bakoitzari libreki erabakitzen uzten bazaio azkenean euren proiektu politikoa galtzen ateratzen dela, zentzuak horrela agintzen duelako”.

### ARNALDO OTEGI

(ATB)

2000.2.9



# Adi egon!

Gida 2000 laster zure postontzian aurkituko duzu.

Autobus ordutegiak,  
egutegia, aurkibide  
alfabetikoa...

Ez baduzu jasotzen, deitu 943 71 23 91 telefonora  
edo zuzenean ARKOra etorri. Otorara Lizentziatua, 31 • ARRASATE

# Ibilgailuak garbitzeko gunea garbitu behar

Garagartzan kotxeak garbitzeko guneko kutsadura saihesteko plangintza ikertzen ari da Udala. Izan ere, han isurtzen diren olioien ondorioz, guztiz zikintzen ari da inguru.

Arazoa konpontzeko asmoz, garbiketa sistema berria ari da aztertzen Udala, Arrasateko Ur eta Lur enpresaren proposamena, hain zuzen ere. Tratuak bide onetik doaz, eta akordiora iristen badira, hurrengo hilabetean ezarriko dituzte kutsadura saihesteko neurriak. Ur eta Lur enpresak olioia eta ura bereizteko zaku bereziak eta makineria salduko lizkioke Udalari, eta garbiketa lanak egingo dituztenen trebakuntzaz ere arduratuko litzateke.

Horrez gain, Garagartzako gune hau erabiltzen dute-



nen zainketa areagotu egingo da, eta isun gogorrekin zigor-tuko dituzte kutsatzaileak, udaleko Zerbitzu sailak adierazi digenez.

## ASPALDIKO ARAZOA

Aspaldiko kontua dira Garagartzako gune horretako kutsadura arazoak. Lehenago ere saiatu zen Udala arazoa saihesten, eta abuztuan 5.000 litro-

ko edukiera duen olio depositoa jarri zuen. Baina jendeak ez omen du edukiontzia erabiltzen. Gainera, orain arte egiten ari den garbiketa oso garestia da. Biltegia bi astero hustu behar da, eta mantenu lanak ere eskatzen ditu eta horrek guztiak hilerio milioitik gorako gastua eragiten du. Hori guztia ikusita, beste saia-kera bat egingo du Udalak.

## Vitorio Luzuriaga greban

MCCren jabetzako Vitorio Luzuriaga enpresak greba egin zuen pasa den astelehenean eta halaxe egingo du hilabete honetako astelehen eta ostiral guztietan lantegiko enpresa batzordeak deituta.

Etorkizuneko plangintza eta plantila edo lan taldearen murrizketa salatu nahi dute grebaren bitartez. Langile guztiak onartuko lituzkeen bide-ragarritasun plana eskatzen dute langileek, baina enpresak 130 langile kaleratzeko asmoa jarri du mahai gainean.

## Gose greba utzi du

Josu Uribeberria preso politiko arrasatearrak pasa den asteazkenean utzi zuen gose greba. 14 egun ezer jan barik eman ondoren, urdaileko minak eraginda utzi du gose greba preso arrasatearrak. Familia artekoek adierazi dutenaren arabera, sei bat kilo galdu dituen arren, azken egunotan nabarmen hobetu da haren osasun egoera. Josu Uribeberria Valdemoroko kartzelan da orain eta hantxe segituko du oraindik hainbat epaiketa zain baititu.

Kepa Urrea preso atxabatarrak, berriz, Valdemoroko kartzelatik Alcalá Mecora eramanean dute.



Arnaldo Otegi, Euskal Herri-tarrok alderdiko bozerama-lea, Monterron jauregian izan zen asteazkenean. Datoren hilaren 12ko hauteskunde orokorretarako alderdia egiten ari den aurrekainaren barnean, "Euskal demokrazia osatzeko oinarriak eta garatze bideak" izenburuko hitzaldia eman zuen Monterroneko hitzaldi aretoa bete-beteta zegoela.


### S. CARRASCAL S.L.

#### Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

#### Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a  
Tel/Faxa: 943 79 01 82



## IBABE GARAJEA

### MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



#### Berezitasunak

Kazuelatxoak  
Otarreko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel: 943 79 67 76

## Gida 2000 kalean



Onintza Lopez de Munain eta Oihana Basabe aritu dira Gida prestatzen.

Aste honetan kaleratu da Gida 2000, AEDk eta ARKOk arte-  
ro zure erosotasunerako egiten duten aurkitegi berezia. Hurrengo astera arte ibiliko da AED Gidak denda, enpresa, zerbitzu eta etxeetan banatzen. Jasotzen ez baduzu, Otalora 31ko ARKoren egoitza-

ra, edo 943 71 23 91 telefonora, jo dezakezu.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz Gatzagako denda, enpresa eta zerbitzuen telefonoak dakartza Gidak ekintzen eta alfabetoaren arabera sailkatuak. Eta edukiak gero eta hobeak izan

daitezten, aurtun hainbat berrikuntza sartu dugu: lau herri horietako autobus ordutegiak eta aurtengo egutegia. Bestalde, herri bakoitzeko komunikabideari eta, Gatzagaren kasuan, enpresa multimedia bati, sail berezia eskaini dugu.

## Olarte kalea betiko itxiko dute ibilgailuentzat

Olarte kalea itxi egin da automobilentzat eta ez da berriro zabalduko.

Maisu Aranotik Gazteluondorainoko gunea oinezkoentzat bihurtzeko asmoa dagoela eta, hodi-  
teria sartzen hasiko dira orain Olarten eta ondoren, oinezkoentzako egokituko da kalea. Kale horretan garajeren bat dutenak bakarrik sartu ahal izango dira automobilez hemendik aurrera.

Arbolapetan hasiko dira hodi berriak sartzeko lanak eta bi astez han aritu ondoren, Olarte kalean hasiko dira.

Bi hilabete inguru beharko dira lanok egiteko eta herritarroei eta batez ere kale horretan bizi dire-



nei ahalik eta eragozpen gutxien sortzen saiatuko dira. Halaxe adierazi digu Elena Letek, lanen arduradunak.

### SARRERA BERRIA

Lan horiek direla eta, alde zaharrerako beste sarrera

bat egokitu du Udala. Hemendik aurrera norabide bikoitza izango du San Frantzisko kaleak. Kale horretan dauden aparkalekuak kendu egingo dira. San Frantzisko biribiletik sartu-irten ahal izango da Seberoraino.

## Pilotalekua ia prest

Uarkape pilotalekuko lanak otsailaren 19rako amaituta egongo dira. Aspaldi behar zuten bukatuta baina arazo batzuren ondorioz, oraindik lanean dihardute.

Atzerapenaren erantzukizuna norena den oraindik ez dago oso argi. Dirudienez, uda partean oso motel lan egin zen eta Santamas egunerako pilotalekua itxuratu besterik ez zuten egin.

Horrez gain, hobekuntza lanak ere egin behar izan dituzte. Alboko hormak koska ugari zeukan eta horma berdintzeko erabakia hartu da. Pilotalekuaren kanpoko alde amaitu gabe dago oraindik.

Pilotalekua, beste zerbitzu batzuk ere izango dira bertan, gimnasioa eta rokodromoa, esaterako. Maiatzean amaituko dituztela espero da.

## Araba Etorbidea adjudikatuta

Araba Etorbideko lanen hobekuntzarako aurreproiektua UR&MA enpresak egingo du. Halaxe erabaki du aste honetako Gobernu Batzordeak. Enpresak hiru hilabete eta bi milioi pezeta ditu aurreproiektua egin eta aurkezteko. Ondoren, aurreproiektuaren arabera proiektua egingo da eta gero, lanak. Hala ere, aurrekontuaren arabera zehaztuko da lanen data. Dena dela, seguruenik datorren urtean hasiko dira.

Bestalde, gogora dezagun etorbide hori guztia estutu egingo dela ibilgailuen abiadura moteltzeko eta bide batez, aparkaleku gehiago sortuko direla.

# Etxebizitza Kontua

**Etxebizitza Kontua etorkizunari begiratzen dion aurrezki mota da.**

**Etxebizitza Kontuak, epe labur edo ertainera etxebizitza erosi edo berritzeko aurrezten lagundu nahi du.**

**Ekarpenak adierazitako helburuetarako eta gehienez 5 urteko epean eskuratu beharko dira.**

**Ordainketa:** batez besteko saldoaren arabera ordaintzen da. Interesak hiru hilean behin ordaintzen dira (%2,75 arte).

**Zerga-arintze Fiskala:** urteko ekarpenaren %15eko zerga-arintze fiskala du, indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen baldintza eta mugekin. Beraz, aukera ematen dizu etxea erosteagatik dauden desgrabazio-abantaila fiskalez hainbat urtetan baliatzeko.

**Beste datu interesgarri batzuk:** erosketa egin behar duzunean, baldintza bereziko hipoteka-mailegu bat lortzeko aukera eskaintzen dizu. Zure erosotasunerako, egiten dituzun mugimenduak libreta batean jasoko dira.



## JARDUNALDI MAMITSUA

Benetan mamitsuak, bai, asteburuan ospatu ziren Sierra de Gata eta Arrasateren arteko topaketak.

Caceresko eskualde horretako kultura ekarri ziguten 140 lagunek. Eta, nola ez, Extremadura-ko plater ezaguenetako bat: ogi mamiak.



## AI, NIRE SENARTXOAA!

Jon Aldanondo, Arrasate Telebistako zuzendaria, ezkondu egin behar zaigula eta, despedida afaria egin zuen ARKOk hainbat lankiderekin. Egin zioten oparia izugarri gustatu zitzaiola dirudi. Jantzi ere egin zituela diote bertan egon zirenek. Zorionak, Jon, lankide guztion partetik!



## Peque choll

AURREZTU %70 BERRIA BEZALAXE EROSITA

Jantziak (0-16 urte) • Haurrentzako den-dena • Haurdunaldirako jantziak • Mozorroak • Jostailuak • Oihalak • Liburuak • Kaseteak • Bideoak • Dekorazio osagarriak

Isasi kalea, 18 / EIBAR / Tel.: 943 20 03 10 Interesatuko zaizu!

Umeentzako gauzen

**SALEROSKETA**

Ez bota... Ez gorde... Ez oparitu...

**SALDU!!**



## SANTA AGEDA EGUNA...



Gizon zein emakume, haur zein nagusi, hortxe ibili ziren larunbatean Santa Ageda-eskean Gesalibar-


koak, alde batetik, eta Garagartzakoak, bestetik. Ederki eutsi diote aurten ere tradizioari.



## ... ETA BEZPERA

Ostirala txikitxoentzat izan zen. Erguinekoak, Musakolakoak, La Mercedekoak, Olartekoak... baserritar jantzi eta etxerik-etxe joan ziren. Eta oso ondo kantatu zuten, goxoki mordoia batu zuten.





# EUSKAL HERRIKO DEIADARRA

# *abstentzioa*


*animatu eta etorri!*

**Otsailak 17, osteguna**  
**Arratsaldeko 7etan Eroskin**

**EKITALDI POLITIKOA**  
Herriko Plazan  
Arratsaldeko 7:30etan

**Hizlariak:**  
- Xabier Zubizarreta  
- Rafa Diez

**Trikitilariak, zanpantzarrak, txalapartariak,...**



**Euskal Herritarrok**

## ANTON GARATE (SANTA AGEDAKO KANTARI OHIA)

# “Santa Ageda batzeak”

**Anton Garate 80 urteko gesalibartarra da, Garate-Etxe baserriko semea. Oso gertutik ezagutzen ditu Santa Agedaren omenezko tradizioak, etxerik etxe kantuan ibilia baita luzaroan. Kopla kantuan ibiltzeari utzi dion arren, fresko-fresko ditu gogoran garai haiek. Eta baita gaurkoak ere.**

— **Noiz hasi zinen Santa-eskean parte hartzen?**

— Sei urteko mutiko koskorra nintzenean. Gesalibartarra izanda, izugarritzko ilusioa nuen. Ezkondu ondoren utzi egin nion, eta gero, seme-alabekin ere ibili izan naiz.

— **Nola ospatzen zen lehen Santa Ageda bezpera?**

— Alde batetik mutikotxoek irteten zuten, bazkalostean hasi eta zazpiak arte. Bestalde, mutil ezkongabeak ordubatean irteten ziren iluntzera arte, eta ondoren afaria egiten

zuten. Belaunaldiz belaunaldi jarraitu zen tradizioa. Baina bat batean, utziaz joan zen jendea, eta gero eta gutxiago geratu ziren.

— **Zer dela eta gainbehera hori?**

— Lehen astegunean egiten zen jaia, eta lanari utzi egin behar izaten zitzaion; gero, jasotzen zen dirua afaritan gastatzen zen, eta horrek guztiak izugarritzko diru galtzea ekartzen zuen. Dena dela, duela hamar bat urtetik hona domekara pasa da jaia, eta horri esker, ederto berpiztu da. Orain gizonak, emakumeak, umeak, aitona-amonak... irteten dira. Aurten 50 bat lagun ibili dira.

— **Nola hasi zen indarberritzen?**

— Astegunetik domekara pasatzeak eragin handia izan zuen. Gainera, Gesalibartarrok beti izan gara musika zale amo-

rratuak. Duela lauzpabost urte, Garagartzako eta Santa Agedako koruek bat egin zuten, eta horrek asko indartu zuen Santa Ageda batzea.

— **Nori bururatu zitzaion berriz santa-eskean hasitea?**

— Ez zen pertsona bakarra izan. Tradizioa beheraka zihuan urteetan, komentarioak suertatzen ziren

lagun taldeetan. Lehenengo erabakia nagusienez, gaur 65etik 75 urtera dituztenek izan zuten. Jaia zetorrela eta kantatzera irtetea proposatu zuten. Nire adinekoak ere han agertu ginen, kantura. Galde-tu ere egin zidaten, “zeregiten duk hik, hire sasoiarekin?” eta nik, “galdu aurretik, zeozer egin beharko dugu!”

— **Baina erabaki soilaz gain, beste zer**



**“Oso modernizatua dago ohitura: orain todoterrenoan egiten dute ibilbidea”**



# endo iraungo du”

## edo zer egingo zenuten...

— Bai. Jentil-Ola elkartearen eratu genuen duela 25 urte, eta 250 auzotarrok egin ginen bazkide, ni lehendakari. Elkartek mesede handia egin diogure ohiturari.

## — Eta hemendik aurrera?

— Ospakizunak berdinak dira, baina gutxiago egin dira. Baina Santa Ageda batzaren tradizioak sendo iraungo du, hori argi daukat. Santa Agedako korua okerrago ikusten dut. Horrek bai, horrek gogor egin du behera. Izan ere, koruko kide izateak konpro-

miso handia eskatzen du.

## — Zer alde dago lehengo eta oraingo ospakizunen artean?

— Oraingoa oso modernizatuta dago. Ni ibiltzen nintzenez taldea bitan banatzen zen: talde bat eguzki-erriatik, eta bestea ainubetik, oinez, eta gero elkartu egiten ginen. Orain, toterrenoan sartuta joaten dira batetik bestera. Segituan amaitzen dute orain ibilbidea; guk, berriz, errentatu arte jarduten genuen.

## — Lehengo ospakizuna

## ala gaurkoa duzu nahiago?

— Biek dituzte alde onak eta txarrak. Oraingoa lasaigoa da, familiarrekoa. Ez da kanpikorik etortzen eta guztia barruan egiten dugu, Jentil-Olan. Gesalibarko gauza bezala geratu da. Lehen, ehundaka eta ehundaka lagun etortzen ziren, Arrasatetik, Aretxabaletatik, Eskoriatzatik... Ospe hori galdu egin da.

## — Egongo da urteotan galdu ez denik...


— Abestiak, elizkizunak, ohiturak... Santa Agedaren koplak lehengo berberak dira.

Horiez gain, etxeren batean gaitxoren bat dagoenean, dirua hari emateko ohiturari ere eusten diogu. Heriotzaren bat izan denean ere, abestu orde, erre-zatu egiten dugu.

## — Pasadizo bereziren bat gogoratzen duzu?

— Hara, Santa Ageda batzea hain zen ospetsua eta errekonozimendua hainbeste izanik, ospatzen zenean Zerrajera itxi egiten zuten seiretatik ordubietara, jendeak jaiak behar bezala ospatzen. Hori urte askotan egin zen. ■

## Eskaiozu San Valentini ondo aukeratzea





# Casa Ceciaga

Guztia barruko  
modan eta  
osagarrietan

Maalako Errabala, 3 • ARRASATE  
Tel • Faxes: 943 791262



# MILURTE BERRIKO IKASTOLA




ALMEN IKASTOLA • ARRASATEKO IKASTOLA • LEHENHITZ HAUR IKASTOLA

GURE IKASTOLETAKO BERRI IZATEKO ARRASATEKO BULEGOAN  
INFORMATU ZAITEZ

Matrikula egunak:  
Otsailak 7tik - 18ra

**Matrikula zaitetz!**

Ordutegia:



Tel. Mugikorra: 636 62 14 13  
(Bulego Ordutan)



# ATB: 10 urte, hamaika kontu eta aurpegi

1990eko otsailaren 13an. Orduan iritsi zen zuten, arrasatearren, etxeetako telebistetara Arrasate Telebista. Ilusio handiz eta ez neke gutxiagorekin sortu zen ideia. Euskaraz komunikatzeko aukera eskaintzen zuten beste medio bat izan

nahi zuten. Arrasate Pressek bere bidea egin zuela eta beste proiektu honi ekin zioten herri aldizkaria bultzatu zuten lau lagunek. Ordutik hona, jende ugari pasa da lehenengo Ospital zaharretik eta orain Otalora kaleko platotik. Mila aur-

pegi eta mila kontu. Oraindik aurrera begiratzen duen herri telebista hau atzera begiratu behar dago gaur. Hamar urte betetzen ditu Arrasate Telebistak. Zorionak!

**O**tsailak 13, martitzena. Orain dela hamar urte. Beste-rik ez! Egun horixe aukeratu zuten Arrasate Telebistak lau haizetara zabaltzeko. "Suerte txarreko eguna" esango zuten Koldo Rodrigezek, ATBren lehenengo aurpegiak, baina "ilusio handiz ekin genion eta ondo atera zen. Gero Monte tabernara joan ginen gure lehen albistegia ikusteko".

Baina hori lehenengo eguna izan zen. Aurretik, ordea, lan ugari egin behar izan zuten ATBko lan taldeak.

Izan ere, garai hartan ez omen zen legezkoa herri telebista. Eta ATBko bultzatzaileek buruhauste dezente izan zuten euskarazko telebista txiki baina aldi berean handi hau aurrera ateratzeko.

Espainiako gobernuko bi gizonen bisita izan zuten orduan IMIn biltzen zirenek. ATBkoek egin nahi zutena ez legezkoa zela eta bidera ezina. Baina Joxe Aranzabal, Josefe Diez de Tuesta, Jose Mari Eraña eta Iñaki Mendi-guren ez zuten amore eman. Madrileraino joan ziren euren egitasmoa azaltzera. Baina hori ez zen nahikoa izan eta berriz etorri zitzaizkien garai



Bertirtek eta Unaik zuzentzen zuten *Larrugorritan* saioaren une bat, 1992an.

hartako Komunikazio ministro Jose Barrionuevoren taldeko bi gizon misterioitsuak. Hori dela eta, Donostiaraino joan ziren berriz ere ATBko bultzatzaileak Arrasateko herri telebista izango zenaren berri ematera.

Horren aurrean ATBren sorreraren alde lanean ari zirenek ATBren talde babesleak sortzea erabaki zuten. Hortxe sartu ziren San Franzisko Xabier eta San Viator ikastola, AED eta beste hainbat lagun, ATBren aldeko sinadura bilketa egitera.

Askok egin zuten ATBren aldeko apustua eta horri esker, aurrera egitea erabaki zuten. "Jendeak ezagutzen ez zuten telebista bat ixteak ez zuten eraginik izango, baina aineratu ondoren debekatuz gero, jende askoren kezua entzun behar izango zituzten".

Gauzak horrela, ATBren sorrera aurreratzea erabaki zuten eta dena prest izan gabe, otsailaren 13an lehenengo albistegia aineratu zuten Arrasateko herri telebistak.

Ordutik gauza asko alda-

tu da, bai herri telebista honetan, eta baita Arrasaten ere. Eta aldaketa horien guztien berri eman du egunero, astelehene-rik ostiralera, *Berriak* saioak eta harian harian gehitzen joan diren saioek ere bai, noski.

Dena dela, lan hau ez litzateke posible izango telebistaren atzealdean lanean jo eta sua ibiltzen diren teknikariak gabe. Eurak dira etxeetara hel- tzea posible egiten dutenak eta euren eman beharko genizkieke eskerrak eta zorionik beroenak.

## LAN TALDE TEKNIKOAK

Andoni Urzelai, Jasone Diaz de Gereñu, Iban Ayesa eta Txapi izan ziren Joxe Aranzabalek zuzentzen zuen ATB hartan orduan erabiltzen ziren "Super VH" kamarak hartu eta kalera irteten lehenak, Arrasateko irudiak eta jendea grabatzera. Eurek egokitu zituzten makina guztiak behar bezala.

Andoingo Irudi eta Soinu eskolan ikasi zuten eta aukera paregabea izan zen ATB han ikasitakoa praktikan jartzeko.

Jon Andueza izan zen ATBko bigarren zuzendaria eta berarekin Lutxi Arregi, Andoni Urzelai eta Iñigo Astigarraga aritu ziren.

Hirugarren taldean Andoni Urzelai hartu zuen zuzendaritza eta berarekin Pako Altube, Lutxi Arregi eta Iñigo Astigarraga aritu ziren.

Laugarren taldean Jon Aldanondo iritsi zen ATBra eta Lutxi, Pako eta Andonirekin lan egin zuen, artean Andoni zuzendari zela.

Bosgarren taldean Lutxi hartu zuen zuzendari lana eta Jonekin batera, Iñigo Andola hasi zen teknikari lanetan.

Seigarren taldean nesken txanda iritsi zen. Jonek zuzendari lanei ekin zien eta Iñigo-rekin batera Bea Narbaiza eta Agurtzane Lizarralde hasi



Iban, Jasone, Txapi eta Andoni, lehen teknikariak. 1990.

ziren telebistako teknikari.

Hurrengo ordezkapena Monika Monterok egin zuen, bera sartu baitzen Bearen ordezkia.

Azken bi urteotan ere aldaketa asko izan da ATBko teknikarien artean. Jonek, Iñigok, Monika Monterok eta Oihane Agirrek osatu zuten zortzigarren taldea eta Jonek, Monikak, Oihane eta Iban Gonzalezek bederatzigarrena. Ondoren, Edu Abasolo hasi zen Ibanen ordez.

Gaur egungo taldea handiagoa da. Izan ere, herri telebista honek aurrera begira zabalkunde asmoak ditu eta bailarako herrietako beste komunikabideekin batera aritzeko gogoia, Goiena egitasmoarekin. Hori dela eta, gaur egun Jon Aldanondo, Monika Montero, Oihane Agirre, Edu Abasolo, Iban Toledo eta Mikel Alberdi ari dira; asteburuetan, berriz, Markel Zabala eta Eneko Aseginolaza.

## LEHENENGO AURPEGIAK

Koldo Rodriguez izan zen ATBn ikusi zen lehenengo aurpegia, garai bateko *Berriak* albistegiaren aurkezlea. Eta geroago, Begoña Garai berarekin batera. Orduan astelehen, asteazken eta ostiraletan hasi zen emititzen *Berriak* eta hamar minutuko albistegiak izaten ziren. Geroago Rosa Mondragon, Jon Andueza, Maider Egües, Patxi Monte-

ro, Naiara Gorroño eta Maider Osa.

Baina *Berriak* ATBren saiorik garrantzitsuen delatzen izan dugun arren, dudarik ez da, programazio zabal bati esker egin dituela lagunak herri telebista honek. Kirol saioak, umeentzakoak, elkarriketa eta mahai-inguruak, musika programak, sukaldaritza saioak, bidaiei buruzkoak, enpresa arlokoak... Zerez da egin etxe honetan?

## MUSIKAZ BLAI

*Musikantoi*. Horixe izan zen musikaren inguruan egin zen lehenengo saioa. Mikel Irizar, Pepe Arregi, Patxi Montero eta Asier Bergaretxerekin. Gogoratzen duzue laukote hura? Kamararen aurrean jarri eta musika bai, baina beste zenbat kontu eta txiste kontatu ziguten?

Maider Egües, Iñaki Barre-

na eta Ruben Iñiguez arduratu ziren geroago musikaz, *Monterock* saioarekin. "Denbora gutxian gauza asko egin daitezkeela" erakutsi zigun hiru-kote honek.

Musika saio hari Eneko Allendek hartu zion txanda, *Buru astinduz*. Beste zenbait doinuren garaia zen orduan eta Eneko horien berri eman zigun astero.

Eta ATBk *Soinuz Blai* segitzen du. Iban Gonzalez eta Edu Abasolok hasi zuten bideo-klipe osatutako musika saioa eta gaur egun Edurekin batera Miren Gonzalez aritzen da. Biak txandakatzen dira astero azken uneko musika doinuak aurkezteko lanean.

Baina musika klasiko ere ezin zen ahaztu eta Arrasate Musikaleko lagunak arduratu ziren hortaz. *Ostiral Musika* izan zen haien aportazioa. Musika eskolan ari ziren neska-mutikoen zuzendari saioak eskaini zituzten mondragoe-tar guztiak Marta Izagirren eskutik. *Musiklasik* dugu gaur egun Marta Izagirrek eta Iñaki Olaizolak zuzentzen duten musika klasikoaren tartea.

Bertsoak dira euskaldunon artean doinurik ezagunak eta gaur egun bertsolari-tzari buruzko saio bat ere badago ATBn. Anartz Agirrek aurkezten du eta *Zortziko Txikian* aritzen da Ainhoa Agirrezaldegiarekin batera.



Otarorako egoitza estreinatzen zuten taldea.



Asteburuetan ere jende askok egin du lan.



Andoni, Iñigo, Lutxi eta Jon, bigarren lan taldea. 1992.

Umeak etorkizuneko ikusentzule izan daitezkeela ere ez zuten ahaztu ATBko arduradunek. Hori dela eta, umeentzako saioei ere heldu zieten. *Bapirulauke* izan zen lehenengoa Anuska Lasa eta Said Mehasiri esker. Ondoren *ATBketan* saioari ekin zion Anne Igartiburuk, orduan zazpi bat urte zituen Jon Larrañaga haurrekin.

Anneri Jon Etxeberriak eta Iban Lizarralde hartu zioten erreleboa eta eurekin segitu zuten Jon gazteak ere. Lotsa asko barik, hiru gazte hauek garai bateko mondragoetar gaztetxo guztien barre algarak eragin zituzten. Atzetik etorri zen Idoia Peñakoba eta seriotasun piska bat jarri zuen aurreko bikotearen lanean.

Herriko txikienak *Larrugorritan* jarri aurretik Unai Iparagirrek eta Betirtze Iñurritegik *Hikumikan* saioa egiten

hasi ziren. Geroago izena aldatzea ere erabaki zuen bikote honek Alazne Ruiz de Munain fitxatu zutenean eta *Kukaratxa Motel* saioa iritsi zen.

*Kukaratxa Motelek* hainbat garai bizi izan zituen eta bolada batez *Barrelekaixoka* saioa ikusi zuten gaztetxoenek Eider Otxoaren eskutik.

Gaur egun Mikel Lizarralde arduratzen da herriko neska-mutikoak alaitzeaz. Mikel eta bere bi laguntzaile finak: Garazi Carrillo eta Maitane Ruiz de Munain.

Eta nork ez du ATBko besaulkia gogoratzen? Zenbat pertsonaje pasa ote da Anne Igartibururen ondotik? Pertsona ezagun asko eseri zen Anneren ondoan eta bere galderei lotsarik barik erantzun. Eta Annek ATB utzi zuenean, Aintzane Gardokik ekin zion lanari.

Beste jarleku bat erabili



Jon Anduezak ATBko talde hau zuzendu zuen, 1992an.

zuen Maider Egüesek gazteekin *Txatxaran* egoteko.

Baina musika eta besaulkiak ez ziren nahikoa eta Naiara Gorroñok, Natali a Canas, Itsaso Garmendia eta Saioa Diez, jendea *ATB Pubera* gonbidatzea erabaki zuten. Hantxe aritzen ziren, barra baten inguruan, herriko txutxumutxu guztiak aineratzen.

Eta txutxumutxuez barik, gauza serioagoez ere aritu izan dira hamaika lagun gure etxeko pantaila txikietan. Lehenengo Jose Mari Velez de Mendizabalen eskutik. *Zenbat buru, hainbat aburu* esaera egia dela erakutsi zigun Jose Marik.

Jose Ramon Elortzak mondragoetar askoren *Erretratua* atera zuen garai batean eta Karmele Zuazubiskarrek hartu zion txanda, *Aurrez aurre*. Orain, berriz, Edurne Mujika aritzen da *Aurrez Aurre* zer

esana izaten duten pertsonajeekin. Tartean, Jon Sarasuak *Pareak Jokoan* jartzen zitueneko gogoratu behar. Gai bakarra, bi iritzi. Horixe zen saioaren ardatza eta horrela aritzen ziren bi gonbidatu Jonen gidaritzapean iritzi ematen.

Argiñanok telebistako sukaldaritzaz ezagutzera eman aurretik, Karmele Zuazubiskar izan genuen gurean eguneroko gauza goxoak jaten erakusteko. Gaur egun, eta bailarako jatetxeetako sukaldariei esker, *Gatza eta Berakatz*a edozein menutan beharrezko direla ikasi dugu.

Baina zer litzateke telebista kirolen berri barik? Horretaz ere jabetu ziren ATBko arduradunak eta Mondra futbol taldearen jarraipena egiteari ekin zioten. *Mondragol*, ordea, motz geratu zen, asko baitira herrian kirola egiten dutenak eta ez futbola bakarrik. *Mon-*



Paco, Jon, Andoni eta Lutxi, hirugarren lan taldea. 1993.



Lutxi, Jon, Iñigo eta Paco, laugarren lan taldea. 1993.

drasportek erantzun zion horri. Jon Anduezak hasitako lanari bikote trebe batek heldu zion: Mikel Uribesalgok eta Gerardo Mendizabalek. Hauen freskotasunari Jose Luis Ezkuraren futbolzaletasuna gehitu zitzaion eta geroxeago Eneko Aranguren atxabaldarrak eman zigun herriko taldeen jokoaren berri. Gaur egun ere atxabaldar bat ari da lan horretan. Baina Itxaro Zubillagak, Xabier Urzelai fitxatu aurretik, Esti Loitiren laguntza izan zuen. Izan ere, Estik esperientzia handia hartu zuen Iñaki Barrenarekin *Mondrasport* aurkezten zuenean.

Baina ostiralak oraindik ere ahul samarrak zirela pentsatu zuen zenbaitek eta horri irtenbidea eman nahian, aste-ko albistegietan landutako berriei bestelako ikutu batzuk emateko asmoz, Mikel Irizar *Astebeterekin* hasi zen. Aste-ari errepasoa ematen zion aste-

ro, Xabier Ibarzabal etorri zen arte. Hark bete zuen Mikelek utzitako hutsunea.

Ondoren etorri ziren Berriak saioa aurkeztu izan duten aurkezle guztiak eta *Astebete*, *Mondrasport* saioarekin batera, ATBren saiorik beteranoenak dira.

Herri telebista izanik, ATB ez da Mondragoera mugatu eta Maria Agirrearekin, *Munduari Buelbaka* ibili ginen garai batean. Gero Garikoitz Kortazarrek ere erakutsi zizkigun munduko bazterrik izkutue-  
nak. Eta gaur egun, beste modu batean bidaiatzeko aukera eskaintzen digu *Guganda* saioak. Beñat Arzadun eta Xabier Sarasuari esker Hirugarren Munduan nola bizi diren ezagutzeko aukera daukagu, hamabostero Aintzane Gardokik arukezten duen saioan.

Aurpegi asko eman du ezagutzera ATBk. Eta bada gure artean oso ezaguna den



Gaur egungo ATBko teknikoak.

ahots bat eta ATBri esker aurpegi ere ezagutzen dugun pertsonaje bat: Alberto Gorritiberearen kasua da hori. Herri Irratiko esatari honek enpresen berri ematen digu *Ekilan* saioan.

Eta pasa berri den urteko saioa dugu *Hamaika Magazin* ere. Arantzazu Lagunilla kontu kontari aritzen da hama-

bostero sexualitatea, osasuna, landareak eta beste hamai-ka gairi buruz. Honek ere laguntza paregabea dauka Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Monika Montero-  
rekin. ■

Marijo Deogracias.

Lehiaketa mundiala! • J. Aranzabalek eskainitako mikro-katea

otsailak 13, igandea

10 urte ordutan zuzenean 12:00-22:00

J. Aranzabalek eskainitako mikro katea • Lehiaketa mundiala!

deitu • deitu • deitu • deitu • deitu • deitu • deitu • deitu

deitu • deitu • deitu • deitu • deitu • deitu • deitu • deitu

# Zergatik aukeratu duzu zure seme-alabarentzako eskola publikoa?



**Agurtzane Barrutia**

“Masifikaturik ez dagoelako eta konfiantza ematen didalako”.



**Agurtzane Garai**

“Behar ditugun zerbitzuak ematen dizkigulako: jangela, garraioa, orientazioa...”.



**Josebe Landaluze**

“Euskalduna delako eta Arrasateko eta Euskal Herriko ohiturak bultzatzen dituelako”.



**Jose Jabier Zeziaga**

“Erdialdean bizi naiz; hala ere, publikora eramaten dut garraioaz arazorik ez dudalako”.




**Ana Segundo**

“Eskola guztietan lan egiteko era antzekoa izanda, publikoan erre-kurtsoak dohainik eskaintzen dizkigutelako”.



**Antxon Herrero**

“Nik uste dut baloreak oso ondo lantzen direla: aniztasuna, berdintasuna, elkartasuna...”.



**Andoni Alzelai**

“Teknologia berriak eskaintzen dituelako eta beraien abantailatz baliatzen delako”.



**Garbiñe Santacruz**

“Gerora begira: lan mundura, Unibertsitatera, maila akademiko ezin hobea ziurtatzen duelako”.



TXALO Produzioak, S.L.k

aukezturik

# *Dama eta Kardinala*

*Jacques Rampalen komedia*


ANE GABARAIN

eta

KANDIDO URANGAREKIN

Zuzendaria

RAMON BAREA



A N T Z E R K I A

## *Amaia Antzokia*

*Otsailak 13, igandea*

*19:30ean*

*Sarrera: 1.000 pta.*

*Gazte-txartelarekin 800 pta.*



ARRASATEKO UDALA

Kultura saila ■





## Zertan ari zarete, mutilak?

A spalditxo art gara esaten horrela ez dela jokatzeko. Min hartuko duzuela. Eta, azkenean, hala gertatu da. Xhasss Ugarte eta AT Lokala taldeen arteko partidari, 1 eta 10 irabazi zuten Xhasss taldekoek, baina lurrean bueltaka ibiltza.

**ARRASATE KIROLAK**  
Kontzezino Kalea, 8 - Tel. 943 794 612 - ARRASATE-MONDRAGON

### BOSGARRENA KALERA

Baina zer gertatzen da aurten Zaldibarko txapelketan? Taldeak gogo barik ari dira, ala ganora falta guztiena da? Joan den asteburutik talde bat gutxiago dago. Oraingoan Bar Nuevo taldea agertu ez zela eta, kalera bidali dute antolatzailleek. Hori dela eta, Orlando Piratas taldeak 1 eta 0 irabazi zuen, jokatu barik.



## Hurrengo partidak / 12. jardunaldia

Iarunbata, 12		Iturripe A		Epailea	
<b>Zaldibar</b>	<b>Epailea</b>	15:50	Atxanta el Ret. - Ume Zikinak	Fraguel Goi)	
09:50	Aurrera Bolie - Branka tab. (Kanp. har.)	17:00	Etxe Mobil - Fraguel Gol	(Atxanta)	
11:00	Kanpazar harrobia - Irati STS (Branka)	<b>Iturripe B</b>		<b>Epailea</b>	
12:00	Koka Juniors - Leya (Irati STS)	15:50	Giraldilla Con. - You Know	(Saukelu)	
13:00	Orlando Piratas - Kobate DKB (Koka Jn.)	17:00	DA Iristu - Saukelu Scream	(Giraldilla Con.)	
14:00	Makai - Dribling (Kobate DKB)	<b>igandea, 13</b>		<b>Epailea</b>	
15:00	IKP - Sas T (Makai)	<b>Zaldibar</b>	11:00	Kamasutra - Aldibi	(Timoftol)
16:00	Makanudos - Potroak (IKP)	12:00	Timoftol - Alai Gozokiak	(Kamasutra)	
17:00	Goma 2 - Betrayar (Petroak)	13:00	AKTA - Txeyenex	(Alai Gozokiak)	
18:00	Etixerat - Garaje Oscar (Betrayar)	<b>Atsedena:</b> Komando Alpargat, AT Lokala, Xhasss Ugarte, AC Surkos, Borrock & Roll eta Serengeti			

## Emaizak

A taldea
Sau. Scream 5 - Atxanta el ret. 0
Irati STS 3 - Goma 2 8
Komando Al. 10 - Giraldilla Con. 5
Fragel Gol 9 - DA Iristu 5
Ume Zikinak 2 - Kan. Harrobia 3
You Know 1 - AC Surkos 7
Orlando Piratas 1 - Bar Nuevo 0
Xhasss Ugarte 1 - AT Lokala 10

B taldea
Makanudos 8 - Makai 4
Branka Tab. 5 - Garaje Oscar 2
Txeyenex 2 - Timoftol SMDB 12
Borrock & Roll 1 - Serengeti 8
Petroak 5 - Etixerat Taberna 2
Aldibi 7 - Koka Juniors Basati 2
Alai Gozokiak 2 - IKP 5
Dribling 2 - Aldibi 0
Sas T 0 - Aurrera Bolie 4
Leya 3 - Akta 0

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
SOLARIUMA  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78

**Monte taberna**  
Maalako arrabala, 11  
Tel.: 943 79 20 56

**TTUKUN**  
Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a  
Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62


**URRATS**  
AHOLKULARITZA  
GARIBAI, 3  
Tel.: 943 79 87 74  
ARRASATE

## ATLETISMOA Bere martxan



Arrasate Kiro-lak Atletiko taldeko korrikalariak Muskizen aritu ziren asteburuan Euskal Herriko kros txapelketan. Beteranoetan, 5.000 m.ko lasterketan Jebier Menta 9. izan zen eta Cesar Diez, berriz, 45. Guztira 187 korrikalari izan ziren. Emakumezkoetan, 3.500 metro-tan, Mari Jose Gil 28. izan zen, 83 partehartzaileraren artean. Hurrengo lasterketa Eibarren izango dute eta Gipuzkoako egutegiko azken lasterketa izango da.

## SASKIBALOA Oraingoan ere irabazi!




Badirudi Kenci Arrasate saskibaloitza taldeak ez daukala bere neurriko areririk. Larunbateko partidaren ez zuen inolako arazorik izan Urteta taldea etorri bezala bueltan bidaltzeko: esku hutsik, alegia. Segidan irabazten duen zazpigarren partida izan zen larunbatekoa,

nahiz eta joko aldetik ez zen intentsitate handiko partida izan. Urteta taldeko jokalariek asko min hartuta zeuden eta etxeko taldeak ederki aprobetxatu zuen hori. Honela, Arrasate Kencik lehen zatiaren amaieran 16 puntuko abantaila zeukan. Bigarren zatian ez ziren gauzak asko aldatu, eta markagailuko aldea handituz joan zen amaierako 95 eta 71 iritsi arte.

Asteburu honetan lehen aldiko azken norgehiagoka jokatuko dute arrasatearrek, Donostiako Sto. Tomas Lizeoa taldearen aurka. Sailkapenean aldaketarik eragingo ez duen partida da eta erreza suertatuko da arrasatearrentzat. Izan ere, Iturripen aurreko itzulian irabazi egin zuten Lander Errastiren mutilek.

## ESKUBALOA Epailearekin ezin



Arrasate eskubaloitza taldeko gazteek ezin izan zuten garaipena lortu asteburuan jokatutako partidaren. Hogeitabosna berdindu zuten Donibane taldearen aurka, eta pozik ego-

teko moduko emaitza da, kon-tuan izanda etxeko taldeak jokalariek bat gutxiagorekin jokatuko zituela azken minutuak. Lehen zatiko jokoak nahiko berdintsua izan zen eta azkenean etxeko taldeak 2 goleko aldea lortu zuen. Bigarren zatian ordea epaileak txartel gorria erakutsi zion Beñat Unzueta jokalaritari eta markagailua eusten saiatu zen etxeko taldea partida amaitu arte. Azken emaitza Arrasatek 25, Donibane 25. Aste honetan Xarpot taldearen aurka jokatuko dute.

## PILOTA Udaberri txapelketa



Larunbatean hasi zen Gipuzkoako Udaberriko txapelketa. Lehen urteko kadeteek, Aritz Zuazuak eta Aitor Agirrek Iturripen 22 eta 5 irabazi zieten añogatarrei. Bigarren urteko kadeteek, Urribarren eta Jimenezek 22 eta 9 irabazi zuten azpeitiarren aurka. Seniorretan, Osinagak eta Lazkanok 22 eta 7 irabazi zuten eibartarren aurka. Larunbatean bigarren urteko kadeteak

Arretxabaletan arituko dira eta lehen urteko kadeteek eta seniorrek, berriz, larunbatean Iturripen jokatuko dute (11:00).

Bestalde, asteazkenean, Debarroko txapelketan kadeteek, Urribarren eta Zuazuak, 10-22 irabazi zieten atxabaltarrei. Gazte mailan, Agirrek eta Domingezek, 16-22 irabazi zuten eta seniorretan, Osinagak eta Lazkanok, 18-22 garaitu zituzten atxabaltarrak.

## ERRUGBIA Etxean onenak



Senior mailako errugbi taldeak etxean jokatuko zuten larunbatean eta 23 eta 0 irabazi zuten Zarautzen aurka. Jaun eta jabe izan ziren arrasatearrek, baina hasiera ez zen erraza izan, asko kostatzen zitzaizkien eta jokoan sartzea. Baloi geldiko jaurtiketak ugariak izan ziren, baina bakarra lortu zuten. Meletan aurkariak indartsuago izan ziren. Lau entsegu: Whiskasek 2 eta Bitorrek eta Markel gazteak bana.

Arrasatearrek bigarren segitzen dute sailkapenean eta asteburu honetan liderren, Getxoren, aurka jokatuko dute.

## Emaitzak

### ERRUGBIA

- **Seniorrak:**  
Arrasate 22 - Zarautz 0
- **Bigarren taldea:**  
Arrasate 17 - Irun 77

### FUTBOLA

- **1. errejional maila:**  
Gazteak 0 - Mondra 2
- **Ohorezko gazteak:**  
Mondra 0 - Aldapetarrak 2
- **2. gazteak:**  
Arrasate 5 - Zestoa 1
- **Ohorezko kadeteak:**  
Sto Tomas 1 - Arrasate 2

### • 2. kadeteak:

- Beasain 2 - Arrasate 1
- **Ohorezko infantilak:**  
Arrasate 2 - R. Sociedad 8

### ESKUBALOA

- **Seniorrak:**  
Lezo 28 - Arrasate 20
- **Gazteak:**  
Arrasate 25 - Doniban. 25
- **Kadeteak:**  
Elgoibar 31 - Arrasate 16

## Jokatzekoak

### ERRUGBIA

- **Kadeteak:**  
Getxo - Arrasate
- **Gazte maila:**  
Getxo - Arrasate
- **Seniorrak:**  
A. Txekorrak - Arrasate

### FUTBOLA

- **1. errejional maila:**  
Mondra - Usurbi.  
Larunbata, 16:15
- **Ohorezko gazteak:**  
Pasajes - Mondra
- **2. gazteak:**  
Baskonia - Arrasate
- **Ohorezko kadeteak:**

Arrasate - Hernani.  
Larunbata, 12:15

- **2. kadeteak:**  
Arrasate - Gazteak.  
Larunbata, 09:45
- **Ohorezko infantilak:**  
Real Union - Arrasate

### ESKUBALOA

- **Seniorrak:**  
Arrasate Almen - Arrate.  
Larunbata, 18:15
- **Gazteak:**  
Legazpi - Arrasate
- **Kadeteak:**  
Arrasate - Almen.  
Larunbata, 16:30

# Gipuzkoako trialsin txapelketa



Goizeko 10:30ean hasiko da Txapelketa.

Gipuzkoako trialsin txapelketako laugarren proba Udalan jokatu da igandean. Errenterian, Hernanin eta Zegaman jokatu da orain arte txapelketa eta igandean junior, infantil, alebin eta nesken mailako bizikleta zaleak arituko dira Udalako oztupoak gainditu nahian.

Arrasate eta Eskoriatzako parte hartzaileak ere izango ditugu Udalan. Juniorretan, Nestor Kortabarria, Xabi Abasolo eta Harkaitz Urrezola ari-

tuko dira. Alebinetan ordezkari bakarra izango da, Xabier Kortabarria. Nesketan, berriz, Oihane Urrezolak hartuko du parte.

Txapelketa goizeko 10:30etan hasiko da.

## HURRENGO PROBAK

Igandekoaren ondoren Urretxun, Oñatin eta Zarautzen izango dira Gipuzkoako Trialsin txapelketako hurrengo probak. Orain arteko sailkapenaren arabera Nestor zarpiga-

rena da 71 punturekin eta Harkaitz zortzigarren, lau puntura. Igandean, beraz, fin aritu beharko dira puntuak gehitzen segitzetik ez badute nahi behintzat. Izan ere, lehenengo sailkatuak, Benito Rosek ez du punturik batu oraindik. Nesken sailkapenean, Oihane, laugarrena da 34 punturekin.

## HASI BERRIAK

Trialsinean hasi berriak direnei txapelketa honek aukera paregabea eskaintzen die. Bizikletarik eraman beharrik ere ez dute izango parte hartzaileek. Izan ere, Federazioak jarriko ditu bizikletak eta kasakoak eta hartara, kirol honetan probak egin nahi dituztenek horretarako aukera izango dute. Gainera, parte hartzen duten hasi-berri guztien artean bizikleta bat zotz egingo da. Baina alde zuzetik ize-na eman beharko da. Horretarako, goizeko 10:00etatik 10:30etara Udalan bertan izango duzue aukera.

# Amaitu da denboraldia

San Andres Xake Taldeak amaitu du dagoeneko aurtengo liga. Joan den asteburuan jokatu zuen lehen taldeak aurtengo azken jardunaldia. Eta ez zuen behar bezala amaitu. Añorgak asko jokatzen zuen eta hango laukoteak ez zizkion gauzak erraz jarri Mondragoekoari. Ortegak jokatu zuen lehenengo taulan eta Jose Ignacio Alonso, Gipuzkoako rankinean hirugarren dagoen jokalararen kontra, galdu egin zuen. Bigarren taulan Tornay aritu zen eta berak lortu zuen arrasatearrek irabazi zuten partida bakarra. Eta ez zen edozein modutan izan. Azken lau minutuetan hogeina mugi-

mentu egin zituzten Tornayk eta Antton Serrasek. Hernandok jokatu zuen hirugarren taulan. Jose Mari Alonsorekin berdintzeko aukera izan zuen, baina azkenengo unean gauzak okertu eta galdu egin zuen arrasatearrek.

Azkenengo taulan Ruiz aritu zen, Lanzen aurka. Ruizek ere galdu egin zuen. Gauzak horrela, 3 eta 1 galdu zuen San Andres Xake taldeak eta Gipuzkoako preferente mailako ligan laugarren gelditu da. Fomento Cultural taldea izan da txapel-duna eta bigarren, Gros taldea. Añorgatarak hirugarren.

Hori dela eta, datorren urtean ez dira euskal ligan aritu-

ko, baina preferentean bi talde arrasatearrek jokatu dute.

Izan ere, igoera aldiko partidak jokatu barik igo da lehen mailako laukotea (Eugenio de Andres, Juan Carlos Mayo, Roberto Villar eta Xabier Aspe), hala erabaki baitzuen federazioak.

Bestalde, San Andres Xake Taldeko hirugarren taldea ere igoerarako partidak jokatzen ari da. Joan den astean bina berdindu zuen Carmelo Mugerza, Mikel Hernando, Juan Luis Arrazola, Gerardo Beillido, Ekaitz Mendizabal eta Oscar Erraezek osatzen duten taldeak, Billabonaren aurka. Aste honetan itzuliko partida jokatu dute.



Erantzuna badakizu, ekarri osteguna baino lehen Arrasate Pressera.

Hilaren bukaeran irabazleen artean zozketa egingo da zuzenean Mondrasport saioan, sari mundiala etxeratzeko.



Aurreko asteko erantzuna: Manasu eta Anapurna.  
Galdera: Noiztik erabiltzen ditu Errealak Astore etxeko jantziak?

Erantzuna: .....  
Izen-abizenak: .....  
Helbidea: ..... Tel.: .....

# Aerobika, kirola egiteko era berria



Arrasate Kirol Proiektuan ez dira atzera gelditzen eta aurtun aerobicak izan duen harre-  
ra ona ikusita, proiektuan ari  
diren neska-mutikoei ere auka-  
ra eskaintzea erabaki dute.  
Derrigorrezko Bigarren Hez-  
kuntzako lehenengo eta bigar-  
ren mailako neska-mutikoei  
zuzentzen zaie aukera eta  
dagoeneko talde bat ere osatu  
dute.



DBHko lehen eta bigarren mailako neska-mutikoak aerobik egiten.

Astelehen eta  
asteazkenetan aritzen  
dira Ferixalekuan,  
arratsaldeko  
17:00etatik  
18:00etara bitartean.

## Asteburuko hitzorduak

Otsailak 12, larunbata

### AURREKIROLA

Jturripe

9:30 Erguin A - SFX C  
Aramaio - SFX B

10:15 San Andres - S Viator B  
SFX A - Merced

11:00 Musakola - SFX U  
SFX U - San Viator A

11:45 Erguin B - SFX E

### MULTIKIROLA

#### NESKAK

Gazteluondo

10:15 Merced - San Viator A

11:00 San Viator B - SFX U

12:30 SFX A - Erguin

#### MUTILAK

Gazteluondo

9:30 San Viator B - Erguin

11:45 SFX C - San Viator A

Musakola

10:15 San Viator C - SFX A

11:00 SFX B - SFX U

11:45 Aramaio - Merced

### INFANTILAK

#### SASKIBALOIA

#### MUTILAK

San Viator

11:30 Arrasate A - San Viator

#### NESKAK

San Viator

10:30 San Viator -

BHI Kurtzebarri

### FUTBOLA

#### MUTILAK

Musakola

10:00 SFX - Kurtzebarri

#### NESKAK

Musakola

#### Entrenamenduan

San Viator - SFX A

## Taldez talde 9. jardunaldia

### FUTBOLA

#### NESKAK

Taldea	P	JP	I	B	G
Almen	19	7	6	1	0
San Viator	18	7	6	0	1
SFX B	16	8	5	1	2
Aranzadi A	15	8	4	3	1
Torrebaso	10	8	3	1	4
La Merced	6	8	2	0	6
Elgeta	5	7	1	2	4
SFX A	4	7	1	1	5
Aranzadi B	3	7	0	3	3

Liga amaitzeko bi partida gelditzen dira: Almen - Elgeta, San Viator - SFX A.

### MUTILAK

Taldea	P	JP	I	B	G
Almen	17	8	5	2	1
Kurtzebarri	15	8	5	0	3
SFX	14	8	4	2	2
Txantxiu 1A	14	8	4	2	2
La Merced	10	8	3	1	4
Aranzadi	10	8	3	1	4
Aozaratza	8	8	2	2	4
Ipintza DBH	7	8	1	4	3
Txantxiu 1B	5	8	1	2	5

P: puntuak • JP: jokaturako partidak • I: irabazitakoak • B: berdindutakoak • G: galdutakoak



Aurrekiroleko SFX E taldea.



Aramaioko Aurrekirola taldea.

# Diseinua



## Kalitatea

## Aukera zabala

# iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g • ARRASATE • Tel.: 943 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52 • ARRASATE • Tel.: 943 79 99 42

**FAGOR** 

# Erakusketa ugari Monterronen

Arrasateko Manos Unidas Gobernuz Kanpoko Erakundearen "Elkartasunaren ibilbidea" erakusketak bihar (otsailak 12) izango du azken eguna. Urtarrilaren 7an ireki zuten erakusketa Monterrongo aretoan, "Egin dezagun mundua guztion lurra" kanpainaren barruan.

Karibe, Brasil, Kanboia eta beste hainbat lurralde daude ikusgai erakusketan. Era berean, munduko arazo nagusiei aurre egiteko egitasmoak aurkezten ditu eta mundu justuago baten alde hainbat erakundek egiten duen lanare ere ikus daiteke.

1960. urtean sortu zen Manos Unidas Gobernuz Kanpoko Erakundea, eta ordutik

bi helburu nagusi izan ditu: batetik, hirugarren munduko errealitateari buruz jendea sensibilizatzea, ondoren behar-tsuei buruzko konpromiso sozialak har daitezten. Bestetik, berriz, Afrika, Amerika eta Asiako hainbat herrialdetako garapen proiektuak finantzatzeko moduak aurkitzea.

## MOTA GUZTIETAKO BITXIAK IKUSGAI

Bestalde, hondakinak nola gutxitu eta nola birziklatu erakutsiko digu, otsailaren 14tik 20ra bitartean Monterron jauregian irekiko den erakusketak. Papera, ontziak, beira eta pilak birziklatzeko moduak erakutsiko dira Udalako Ingurugiro Eskolak eta Deba Garaiko Man-



"Garapenak askatasunera darama gizakia".

komunitateak Arrasateko udalarekin batera antolatutako erakusketa honetan. Horrez gain, antzinako gauzak ere izango dira erakusketa berean.

Astegunetan 18:00etatik 20:00ak arte izango da zabalik. Astebukaeratan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

## Dantza, argazkigintza eta irrati ikastaroak

Gazteria Batzordeak hainbat ikastaro antolatu ditu, otsailetik ekainera arte. Irratizaleentzat, adibidez, aukera bikoitza izango da: batetik irrati kontrol ikastaroa izango dute. Bestetik, berriz, erredakzio eta esatari zateko ikastaroa. Ikas-

taro horiek Arrasate Irratian emango dira.

Irratian jardutea baino dantza egitea gogokoago dutenek ere bi ikastaro izango dituzte aukeran: euskal dantzen ingurukoa martxoan eta urrian, eta hamar urtetik gorako edonork

eman ahal izango du izena. Baina Karibeko dantzen ikastaroa ere izango da, hastapen eta sakontze mailetan. Azken hauek otsaila bukaeran hasiko dira. Argazkizaleek, berriz, argazkilaritzari buruzko ezagutza sakontzeko parada izango dute.

Ikastaroa apirilaren lehenean hasiko da eta alde praktiko eta teorikoa jorratuko dira.

Ikastaroen matrikula mila eta bost mila pezeta bitartekoak izango dira, eta informazio gehiago jaso nahi duenak gazte bulegora jo beharko du.

## Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Erguenera

Txatxilipurdiko ludoteka ibiltaria Erguenera izango da otsaileko larunbat guztietan (12, 19 eta 26an). Goizeko 11:00etatik 13:00era bitartean Erguin Herri Eskolan izango da, eta hiru urtetik hamabi urtera bitarteko gaztetxo guztiak izango dute joateko aukera.

Duela sei urte jarri zen abian lehenengoz "ludoteka ibiltaria" egitasmoa, eta geroztik Erguin, Uribarri, Musakola eta San Andre-



Hurrek ederki pasatzen dute Arrasateko ludotekatan.

sen izan da. Ludoteka ibiltari honekin haur guztiei jolas-terako aukera bera eman nahi

zaie. Jostailu pila izango dute aukeran hurrek, eta eskularkak ere landuko dira.

## Azken egunak

Otsailaren 26an bukatuko da Gure Leku tabernako arte plastikoaren lehiaketan lanak aurkezteko epea. Gaia, teknika eta materialen erabilera libreak izango dira, eta lehiaketara aurkeztutako lan guztien artean hautaketa egin eta ondoren erakusketa izango da Gure-Leku tabernan.

Epaimahaiak apirilaren 5ean emango du ezagutzera erabakia, arratsaldeko 19:30ean Gure Lekun egingo den luntx batean.

KOLDO ZUAZO (EUSKAL FILOLOGOA)

# “Euskalkiei derrigor eutsi behar diegu”

Eibartar hau euskara irakaslea da EHUUn, eta horrez gain “Deba Ibarreko Euskeria” izeneko liburua kaleratu du oraintsu. Liburu horren argitalpenean Arrasateko Udalak ere parte hartu du.

## — Zer jasotzen duzu zure liburuan?

— Hemengo euskara, Deba ibar osokoa. Hamabost herri aztertu ditut, Aramaion hasi eta Mutrikuraino. Horrez gain, euskalkien inguruan ere egin dut saio bat: noiz erabili, nola...

## — Zein atal bereiztu dituzu?


— Aztertu ditudan hamabost herri horietan zein arau betetzen den ikusi dut lehenik. Dialektologia ere landu dut, hemengo euskara oso berezia da eta. Izatez gipuzkoarra da, baina bizkaierarekin antz handiagoa du; era berean, Arabarekin ere muga egiten du, eta Oñatikoek eta Leintz ibarrekoak beti Gasteizekin harreman handia izan duzue. Gasteizen egiten zen euskara eta gaur egun zuek hemen egiten duzuenaren artean badago kidetasunik. Hemengo euskara aztertzeak lagundu dit Arabakoa hobeto ezagutzen.

## — Zein metodologia erabili duzu?

— Lehenengo idatzitako liburuez dokumentatu naiz. Gero galdetegi bat prestatu dut 250 galderarekin. Herri guztietako jendeari pasatu dizkiot eta asko lagundu didate.

## — Euskaltzaindiak ez al du Debarroa onartu “Deba ibarra” beharrean?

— Erabaki hori, izatekotan, berria da. Ibarra erabili dut hasiera batean liburua Eibarko udalak atera behar zuelako, eta nik Eibarko euskaran idatzi



dut. Guk ez dugu “arro” berba erabiltzen. “Ibar” hitza normalagoa da gure toponimian. Edozein modutan, ez dut pentsatzen Deba ibarra jartzea trakeskeria denik.

## — Zein leku izan behar lukete euskalkiek herri hedabideetan?

— Eztabaidatu beharreko gauza da hori. Lehenik bereiztu egingo nituzke ahozko hedabideak eta idatzizkoak. Ahozkoetan, nire ustez, leku handia egin behar litzaieke euskalkiei.

## — Zein etorkizun ikusten diezu?

— Euskalkia gure sena da. Jendeak askotan galdetzen du: euskalkiak zertarako? Euskalkirik gabe senik gabe ibiliko ginatkeelako. Sen gabeko pertsona ez da gauza berriak sortzeko gai, eta ez du irizpiderik irakurri edo entzuten duena zuzena ala okerra den erabakitzeko. Euskalkiei derrigor eutsi behar diegu.

## aste gazte

### ■ LANA

• Nafarroako Komunitaterako, laboratoriko teknikari espezialista, bide, ubide eta portueta-ko ingeniaria eta zerbitzu ogasuneko teknikaria behar dira. Epea: otsailak 23.

• Iruñerriko Udalen Batasunak goi mailako arkitektoa behar du. Epea: otsailak 25.

• Nafarroako Komunitaterako, koordinazioko operadore laguntzailea, fisioterapeuta eta enpresa zientzietako diplomatua behar dira. Epea: martxoak 1.

• Bilboko Kirikiño Ikastolak, pedagogia terapeutiko, haur hezkuntza eta ingeles berezitasunerako lehen hezkuntzako maisu-maistrak eta haurtzaindegietako teknikari espezialista behar ditu datorren ikasturterako.

• Asteazkenero jasotzen dugu asteburuan egunkarietan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma.

### ■ IKASTAROAK

• Karibeko Dantzak ikastaroa: Julio Lantigua dominikarraren eskutik, otsailaren 28tik aurrera, astelehen eta asteazkenetan, Musakolako Gazte Txokoa. Matrikula 4.000 pta. 2.500 ikasle eta langabeentzat.

• Euskal Dantza ikastaroa: martxoaren 3an hasi eta San Juanak arte. Ostiraletan, 7etatik 8.30etara, Lore Gazteaken lokaletan. Matrikula 1.000 pta.

• Irrati kontrol tailerra: martxoaren 14tik apirilaren 13ra, Arrasate Irratiarekin elkarlanean antolatutako ikastaroa, astearte eta ostegunetan, 7etatik 9etara.

• Hastapen mailako argazki ikastaroa: apirilaren 1etik ekainaren 3rarte. Larunbatetan 10:30-13:30. Matrikula 5.000 pta. 3.000 pta ikaslea eta langabeentzat.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

“Ahozko hedabideetan leku handia egin behar litzaieke euskalkiei”



# Programazioa

## OSTIRALA, 11

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.  
Jose Ignacio Lasa  
Bergarako Batzokiko  
sukaldaria.
- 13:45 Guganda (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete. Asteko berrie  
nagusienei errepasoa.
- 20:00 Gatza eta Berakatza  
(errepika).
- 22:15 Musiklasik (errepika).

## LARUNBATA, 12

- 13:30 Asteko programen  
errepikapena: Hamaika  
Magazin, Aurrez Aurre,  
Guganda, Musiklasik eta  
Astebete.

## IGANDEA, 13

- 12:00-22:00 10 urte 10  
ordutan Telemaratoi saio  
berezia. ATBren 10.  
urteurrena ospatuko da  
programa honetan.

## ASTELEHENA, 14

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.  
Mari Karmen Telleria  
sukaldaria.

- 13:45 Astebete (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Mondrasport. Itxaro  
Zubillaga eta Xabier  
Urzelairen eskutik.
- 22:00 Gatza eta Berakatza  
(errepika).
- 22:10 10 urte 10 ordutan.  
(errepika)

## ASTEARTEA, 15

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.  
Mari Karmen Telleria  
sukaldaria.
- 13:45 Mondrasport (errepika).
- 19:20 Jolasplast. Mikel  
Lizarralde aurkeztutako  
haurren lehiaketa.
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Hamaika Magazin.  
Arantzasu Lagunillak  
aurkeztuta.
- 22:00 Gatza eta Berakatza  
(errepika).
- 22:10 10 urte 10 ordutan  
(errepika)

## ASTEAZKENA, 16

- 13:30 Albiste aurrerapena.
- 13:35 Gatza eta Berakatza.
- 13:45 Hamaika Magazin.  
(errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak
- 21:30 Aurrez Aurre. Edurne

- Mujikak aste honetan  
Eugenio Iturriotz medikua  
elkarrizketatuko du aste  
honetan.
- 22:00 Gatza eta Berakatza  
(errepika).
- 22:10 10 urte 10 ordutan.  
(errepika)

- Txapelketaren berri.
- 22:00 Gatza eta Berakatza  
(errepika).
- 22:10 10 urte 10 ordutan.  
(errepika)

## OSTIRALA, 18


- 13:30 Albiste aurrerapena
- 13:35 Gatza eta Berakatza.  
Mari Karmen Telleria  
sukaldaria.
- 13:45 Guganda (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak.
- 21:30 Astebete. Maider Osaren  
eskutik.
- 22:00 Gatza eta Berakatza  
(errepika).
- 22:10 10 urte 10 ordutan.  
(errepika).

## OSTEGUNA, 17

- 13:30 Albiste aurrerapena
- 13:35 Gatza eta Berakatza.  
Mari Karmen Telleria  
sukaldaria.
- 13:45 Aurrez Aurre (errepika).
- 20:00/20:30/21:00 Berriak
- 21:30 Zortziko Txikian. Aste  
honetako programan,  
Santamasetako

# Lehiaketa mundiala

Jose Aranzabal<sup>en</sup> eskutik.



ATBri buruzko iritzia eman eta  
**Mikro kate** hau zurea izan daiteke.

Hilaren 13an, igandez, 943 71 23 93 telefonora deitu  
eta zozketan sartuko zara.

## Gatza eta Berakatza

Sukaldaria: Mari Karmen Telleria (Garoa jatetxea) Oñati.

NOIZ	PLATERA
Astelehena 14	Esparrago beteak.
Astearte 15	Ilarrak patata eta legatzaz.
Asteazkena 16	Mingaina saltsan.
Osteguna 17	Kokotxak Gernikako piperrekin.
Ostirala 18	Garoa kopa.



# Hamar urte, hamar ordutan

Gure Arrasate Telebistak hamar urte bete antolatu du. Hamar urteak hamar ordutan laburbiltzeko, igandean 12:00etatik 22:00ra telebistatik pasa diren artista guztiak gonbidatuko ditugu.

**12:00-13:00**

**Koldo Rodriguez** eta **Begoña Garaik** ATBren hasiera landuko dute *Berriak* eta *Astebete* programekin.



**Koldo Rodriguez** eta **Begoña Garaik**.

**Gonbidatuak:** Maider Egües, Jose Mari Eraña, Jon Andueza, Andoni Urzelai, Iosu Galdos, Iban Ayesa eta Jabi Elduaen.

**13:00-14:00**

**Mikel Uribealago** eta **Gerardo Mendizabal**ekin *Mondrasport*, *Mondragol*, *Ibilixan dabilena* eta *Munduari bueltaka* programak ikusiko ditugu.



**G. Mendizabal** eta **M. Uribealago**.

**Gonbidatuak:** Iñaki Barrena, Itxaro Zubillaga, Jose Luis Ezkurra, Maria Agirre eta Garikoitz Kortazar.

**14:00-15:00**

**Rosa Mondragon**ekin hirugarren orduan *Tertulixan*, *Zenbat Buru*



**Rosa Modragon**.

*Hainbat Aburu*, *Pareak Jokoan*, *Gure Objelibotik*, *Mahai Ingurua* eta *Gaszte Nahaste* ikusiko ditugu.

**Gonbidatuak:** Jose Mari Velez de Mendizabal, Jon Iñaki Lasa, Jon Sarasua eta Beñardo Kortabarria.

**15:00-16:00**

**Kaittin Allendek** eta **Iban Gonzalezek** musikari tarteak egingo diote *Muskantoi*, *Monterock*, *Buru Astinduz*, *Soinuz Blai*, *Ostiral Musikala*, *Musiklasik* eta *Nor Nori Rock* saioekin.



**Kaittin Allende** eta **Iban Gonzalez**.

**Gonbidatuak:** Mikel Irizar, Patxi Montero, Pepe Arregi, Ruben Iñiguez, Iñaki Barrena, Lierni Uribarren, Iñaki Olaizola eta Marta Izagirre.

**16:00-17:00**

**Naiara Gorroño** kulturaz arituko da *ATB Pub*, *Kaleidoskopia*, *Lotsa Barik*, *Hamaika Magazin* eta *Nonzeberri* programekin.



**Naiara Gorroño**.

**Gonbidatuak:** Maier Uranga, Hamaika Magazineko taldea, Aitziber Langaran, Betirtze Iñurritegi eta Agustín Olaizola.

**17:00-18:00**

**Maier Urangari** jaien tarteak laga diogu, *San Juanak*, *Maritxu Kajoi*.



**Maier Uranga**.

**Gonbidatuak:** Jose Ramon Arkauz, Txispas, Pako Altube, Iñigo Astigarraga eta Lutxi Arregi.

**18:00-19:00**

**Unai Iparragirre** haur eta gazteekin arituko da *Bapirulauke*, *Larrugorritan*, *ATBketan*, *Barrelakixola*, *Kukaraxa Motel* eta *Jolasplasp* gogoratuz.



**Unai Iparragirre**.

**Gonbidatuak:** Anuska Lasa, Said Mehasi, Idoia Peñakoba, Jon Etxeberria, Jon Larrañaga, Mikel Lizarralde, Garazi Carrillo eta Maitane Ruiz de Munain.

**19:00-20:00**

**Beñardo Kortabarria** gai bereziak landuko ditu: *Hauteskundeak*, *Ni*



**Beñardo Kortabarria**.

*Alkate*, *Jardunaldiak*, *Elkartean*, *Atzeratuak*, *Nortzuk?*, *Eguraldia* eta *Egia ala Gezurra*.

**Gonbidatuak:** Mikel Irizar, Maria Agirre, Jon Andueza, Karmele Zuzubiska eta Tomas Aspe.

**20:00-21:00**

**Maider Egüesek** *Txatxaran*, *Bakarka*, *Aurrez Aurre* eta *Erretratua* ekarriko ditu gogora.



**Maider Egües**.

**Gonbidatuak:** Anne Igartiburu, Aintzane Gardoki, Jose Ramon Elortza eta Edurne Mujika.

**21:00-22:00**

**Juanito Saizar** eta **Eider Otxoa**ekin *Haratusteak* eta *Play Back* saioak ekarriko ditugu gogora.



**Eider Otxoa**.

**Gonbidatuak:** Bea Narbaiza, Agurtzane Lizarralde, Iñigo Andola eta Nagore Bergaretxe.



**L** 988. urteko ekainean, Balendin Berriotxa Erroman kanonizatu zuten. Autobus bat bete irten zen Donostiatik euskaldunaren kanonizatzean parte hartzera joateko. Erromara joandako gehienak Bergara eta Zumaia-koak ziren, baina, tartean, bi arrasatear ere bazeuden: Agus-

tin Azkoaga eta Maria Dolores Billar, Azkoagaren emaztea.

Kanonizazioaren ondoren, Setien gotzainarekin elkartu ziren euskaldunak eta harekin hizketan egon ziren "oso animoso". Era berean, ikusten duzuen argazki hau atera zuten elkarrekin. On Jose Maria Setien gotzainaren ondoan

dagoena da Agustin eta haren aurrealdekoa, berriz, Dolores.

Euskaldun hauetaz gain, baina, beste ugari gerturatu omen ziren egun hartan Erromara; 5.000 edo gehiago izan omen ziren kanonizazioan.

10-15 egunez izan ziren Italia aldean Donostiatik joandako euskaldunak eta ondorengo egunetan, han zeudela

aprobetxatuz, bazterrak eza gutzen aritu ziren eta besteak beste, Siena, Pisa, Florentzia, Venezia, eta Milan ikusi zituzten.

*Argazkia eta berriemailea: Agustin Azkoaga.*



**Zure hildakoen eskela,  
eskerrona edo urteurrena  
jarri nahi baduzu,  
oraintxe duzu aukera  
Arrasate Pressen eta ATBn.**

Argibideak ☎ 943 71 23 91

Maitasuna eta bitxi eder bat betiko dira

Bitxitegia



Erlojutegia

## ETXEBIZITZAK

### 1. Saldu

- Etxebizitza salgai Aretxabaletan, 100 m² eraikiak, 85 m² erabilgarriak, ganbara ere badauka. Gas naturala. Tel.: 943 77 18 33 edo 943 77 11 76.

- Etxebizitza salgai, San Juanen. Tel.: 677 42 58 30. Jabi.

- Etxebizitza salgai Zigorrolan. 45 m², 3 logela, sukaldia, bainugela, egongela. Kanpoaldera begira eta altzariek. Tel.: 943 77 14 40.

### 3. Errentan emateko

- Ikasleentzat etxebizitza alokagai. Tel.: 943 79 39 02. Gauze deitu 21:00etik aurrera.

- Gela bat alokagai, Arrasate erdi-eldean. Tel.: 943 79 87 59. Teresa.

- Logela alokagai Erguin auzoan. Tel.: 943 79 35 93. 18:00etatik aurrera.

### 4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza konpartitu batean, gela bat beharko nuke. Tel.: 943 79 68 00.

- Baqueira aldean ostatu harria nahiko nuke. Tel.: 943 79 57 31.

- Etxebizitza alokatu nahiko genuke, 3-4 lagunentzat. Tel.: 943 77 03 36.

### 5. Etxeak osatzeko

- Pertsona bat behar da otsailetik aurrera bi gelako etxebizitza bat osatzeko, San Andres auzoan. Tel.: 943 83 36 57.

- Logela bat dut alokagai etxebizitza batean. Tel.: 617 72 47 83.

- Pertsona bat behar da langileen etxebizitza osatzeko. Tel.: 943 77 15 67.

- Pertsona bat behar dugu etxebizitza osatzeko. Langilea bada hobe. Tel.: 943 77 03 36. Ainhoa.

## GARAJEAK

### 7. Saldu

- Garajea salgai, Jose Luis Iñarra pasealekuko 18an, Altamiran. Tel.: 943 79 23 27. 14:00 - 17:00 eta 20:00etatik aurrera.

## ETXEBIZITZAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Etxeak osatzeko
- Bestelakoak

## GARAJEAK

- Saldu
- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LOKALAK/ORUBEAK

- Saldu

- Erosi
- Errentan emateko
- Errentan hartzeko
- Bestelakoak

## LANA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## IRAKASKUNTZA

- Eskaintzak
- Eskaerak
- Bestelakoak

## MOTORRA

- Saldu

- Erosi
- Bestelakoak

## DENETARIK

- Saldu
- Erosi
- Trukatu
- Eman
- Hartu
- Galdu
- Aurkitu
- Bestelakoak

## HARREMANAK

- Agurrak
- Kontaktuak
- Deialdiak
- Bestelakoak



# 943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

- Garajea salgai Kontzeziño kalean, 17 m²koa. Tel.: 943 79 46 88. 19:00 - 21:00.

### 9. Errentan emateko

- Garajea alokatzen da Uarkape kalean. Tel.: 943 79 84 35.

- Bi garaje itxi alokatzen dira Arima zuri plazan, bietako bat bikoitza. Tel.: 656 75 91 98.

- Erdialdean dagoen garaje itxia alokagai. Tel.: 943 79 01 84. Edurne.

## LOKALAK/ORUBEAK

### 12. Saldu

- Akademia batek eskola partikularrak emateko ikasgela alokatzen du. Tel.: 943 79 18 70.

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

### 14. Errentan emateko

- Prentsa saltzen duen denda salgai edo alokagai Aretxabaletan. Tel.: 943 77 19 20.

- Taberna alokagai, Larrea enparantzan. Tel.: 943 79 38 04.

## LANA

### 17. Eskaintza

- Ile apaintzaile tituluak lan egiteko prest. Tel.: 943 79 53 57. Maider.

- Neska umeak zaintzeko prest, arratsaldetan. Tel.: 943 71 53 74.

- Era guztietako lanak eta apunteak ordenadoren pasatzen ditut. Aukera zabala: letra eta tamaina gustukoena, marrazkiak, grafikoak, etab. Tel.: 646 09 53 38.

- Emakume euskaldunaketekeo lanak egin eta umeak edo pertsona nagusiak zainduko lituzke arratsalde. Tel.: 943 79 07 73.

### 18. Eskaerak

- Dendaria behar da Arrasaten, 20 urteko gorako neska. Tel.: 943 79 44 88.

- Emakumea behar du neskaitala bat zaindu eta etxekeo lanak egiteko. Tel.: 943 79 29 19.

- Zerbitzari euskalduna behar da jate-txe batean astebukaeretan lan egiteko. Tel.: 945 44 50 86.

- Pertsona bat behar da taberna zerbitzari lanak egiteko, asteburuetan. Tel.: 943 79 02 25.

- Neska bat behar du asteburuetan zerbitzari lanak egiteko. Tel.: 943 76 22 68.

- Zerbitzari bat behar du taberna lan egiteko. Tel.: 943 79 58 50.

- Zapata konponketan ikasi nahi duen neska-mutila behar da. Tel.: 943 76 22 27. Aitor

- Neska bat behar du orduko etxekeo lanak egiteko. Tel.: 943 79 38 55. 19:00etatik aurrera. Atxen.

- Emakume bat behar da ume bat zaintzeko Oñatin. Tel.: 943 78 05 96. Gauze deitu.

- Pertsona bat behar da bi haur zainitzeko eta etxekeo lanak egiteko. Tel.: 943 79 28 50.

## IRAKASKUNTZA

### 20. Eskaintzak

- Esperientzia eta EGA titulua duen lizentziatuak Lehen eta Bigarren Hezkuntzako eskola partikularrak ematen ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 79 83 46.

- Ingeles filologia ikasten ari den mutilak, ingelesezko eskola partikularrak emango lituzke Mondragoen edo Eskoriatzan. Tel.: 943 71 47 85.

### 21. Eskaerak

- Logseko 2. mailako matematikako eta fisikako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 79 79 69.

- 1.ko LHko eskola partikularrak emango nituzke. Tel.: 639 48 00 28. Arratsalde eta gauze.

- Ingeles hitz egiteko mintzalaguna nahi dut. Ordu bateko pare bat ordu astean. Trukean euskara erakutsiko nioke. Tel.: 943 79 82 66.

- Logseko 2. mailako fisikako eskola partikularrak jasoko nituzke. Tel.: 943 79 55 60. Arratsalde.

## MOTORRA

### 23. Saldu

- Kawasaki Volcan 500 cc. motorra salgai. 21.000 km.ditu. Pantaila, bizkar babesa, defentsak eta alar-

ma, urrutiko kontrolagailuarekin. Kaskoa dohain. 535.000 pta, negoziagarriak. Tel.: 943 77 08 69.

• Fiat Tipo autoa salgai. 16 balbula. Matrikula: SS-AM. Tel.: 943 76 06 53.

• Vespino motorra salgai, gutxi erabilia. 50.000 pta. Tel.: 619 65 40 69.

• Trialerako motorra salgai. Gas gas 215. 92. urtekoa. Tel.: 943 79 78 36.

• Motorra salgai. Rieju RR, hori kolorekoa. Ondo prestatua. Tel.: 606 13 50 32. Gorka.

• Renault 5 salgai. SS-T matrikula, egoera onean eta IATA pasatu berria. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 11 99.

**DENETARIK**

**26. Saldu**

• Euskal artzai txakurraren kumea salgai. Hilabete eta erdikoa. Merke. Tel.: 943 79 60 48. Nerea.

• SWR Twelve Bass Combo Celestine marka duen 100 W-dun aplikadorea eta Ibanez baxu elektriko

bere kutxatilarekin batera, salgai. Ondo zainduta eta egoera onean. Tel.: 943 79 94 49. Oskar.

• Bulegorako altzariak salgai. Tel.: 943 79 84 35.

• Umeentzako kotxetxo salgai. Prezio onean. Tel.: 943 79 71 52. Isa. Bulego orduetan deitu.

• Bigarren eskuko Pigini 100 akordeoia salgai. 120ko bajua. Tel.: 945 40 33 63.

• Fondoko eskiak salgai, ekipo guztia, neurria 42, bi aldiz besterik ez ditut erabili. Tel.: 943 79 88 83. Mikel.

• Teknografo (marrazki taula) pare bat salgai, prezio onean. Tel.: 943 79 11 80.

• Soinu txikia salgai. Berria, zero-sette. Solen afinatua. 190.000 pta. Tel.: 945 27 44 26.

• Bigarren eskuko Pigini markako akordeoia salgai. Tel.: 943 79 13 88. Amaia.

• Playstation berria, erabili gabea, salgai. Dual Shock. Bijoko. Tel.: 943 79 65 80. 17:30-20:30.

• Natural hazitako bildots eta txahal labeldunak izozkailuan sartzeko salgai. Tel.: 689 54 18 61.

• Whipit piragua salgai, arrauna, bainuestalkia, eta bi puxika. 130.000 pta. Tel.: 943 79 78 36.

• Marrazteko mahaia, "Lester" marka alemaniarra, salgai. Berri berria da. 15.000 pta. Tel.: 943 79 25 10.

• Cocker txakurrak salgai. Tel.: 696 05 73 46.

**27. Erosi**

• Xoxoa disketeak ateratako LPak erosten ditut: Lisker, Itoiz, Itziar, etab. Tel.: 943 52 65 77.

• Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Tel.: 639 82 27 90.

**29. Eman**

• Ehizako hiru txakurkume emateko. Bi hilabete baino ez dute. Tel.: 943 79 55 07.

**31. Galdu**

• Jokin Zaitegi plazan bi giltza-sortagaldun nituen. Sobre baten barruan zeuden. Aurkitu dituenak, mesedez,

telefono honetara deitu dezala: 943 75 22 74. Arratsaldez.

• Plumifero urdin bat galdu dut azoka inguruan. Tel. 943 77 04 21.

• San Andres inguruan montura marroia eta aumento handiko beturrekoak galdu nituen, orain dela 15 bat egun. Tel.: 943 79 45 16.

• Zenbait bitxi zintzilik duen urrezko kataia galdu nuen urtarileko azken egunetan. Aurkitzen duenak ordain saria jasoko du. Tel.: 639 65 34 85.

**32. Aurkitu**

• Urrezko katea dominarekin, Iñaki eta data jartzen duena, Udaltzaingoan dago jasota.

• Ford auto baten giltza aurkitu dut. "Reparaciones Leniz" jartzen du giltzatak. Tel.: 943 77 03 69.

**HARREMANAK**

**35. Kontaktuak**

• Gazte talde bat lokala alokatzeko prest. Interesatuek jarri iragarria eta telefonoa Arrasate Pressen.

**MARGO ERAKUSKETA**



Margolaria: Peio "Goello"  
Otsailan zehar ikusgai

**TOKI-EDER**  
K A F E T E G I A

Bañez Dk., 11 (San Andres auzoa) • Tel.: 943 79 31 45



# Zure maiteak mer



## ♥ Zubizarreta Galeria 44

Zerkaosteta, 8  
Tel.: 943 79 90 50



## ♥ Urrea bitxitegia

Maalako Errabala, 8  
Tel.: 943 77 02 23



## ♥ Nerea

Erdiko kale, 28  
Tel.: 943 79 13 43



## ♥ Amagara

Erdiko kale, 54  
Tel.: 943 79 09 09



## ♥ Hire

Iturriotz, 4  
Tel.: 943 79 14 84



## ♥ Lasagabaster

Zerkaosteta, 1  
Tel.: 943 79 13 55

# ezki duelako



## ♥ Lore lurrindegia

Olarte, 10  
Tel.: 943 79 52 50



*Freskura eta  
disdira emango  
dizun  
tratamendua  
aurkitu*

i.f.

Ayer VALMONT CLARINS  
KORA O'NEAL HR BIOTHERM

## ♥ Sikol

Olarte, 31  
Tel.: 943 79 89 32



*2000. urtean zure  
oparia desberdina eta  
berritzailea izan  
dadila*



*Kupoi hau aurkeztuta %10eko  
deskontua ezkontza gonbidapen eta  
oparietan.*


*Apirilaren 30ra arte*

## ♥ Tamayo

Ferrerias, 32  
Tel.: 943 77 03 80

## ♥ Lore

Olarte, 10  
Tel.: 943 79 52 50



## ♥ Beatriz

Erdiko Kale, 11  
Tel.: 943 79 14 33



Bizitza erabakiz beteta dago.



Hobe bai, denak hain errazak balira.

Opel Corsa EDITION 2000

goragailu elektrikoarekin,  
gidagailu indartua,  
gidalariaren air-baga,

itxiera zentraliztua,  
6 bozgoragailudun irrati-kaseta,  
aleaziozko llantak eta atzealdeko spoilerrea.

**1.300.000 pta. besterik ez\* / 7.813 euro**

[www.opel.es](http://www.opel.es)

\*Opel Corsa Edition 2000 1.0 12v 3a. fabrikatzaileak gomendatutako P.S.P. Garraio, BEZa, matriculazio zerga, promozio deskontua eta Prever Plana barne. Matriculazio gastuak sartu gabe. Hilabete bukaera arteko eskaintza Penintsula eta Balear Irletan. Euro 1=166,386 pta.

**OPEL**

**TALLERES OLA**

Olabarrena auzoa, z/g. Tel.: 76 33 44 / 45 / 46 / 47. BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEN

**TAKOLO AUTOAK, S.L.**

Araba Etorbidea, 3.(escatu pabiloia). Tel.: 79 05 86